



ARGIA

LEHIARIK GABE "EGONKORTASUNA" BESTE LAU URTEZ



URKULLU
LEHENDAKARI



EAJ
PNV





PUNTADAZ PUNTADA TXIKITIK ERAGITEN ARGIA EGUNA 2016

URRIAK 1, ZAPATUA, ONDARROAKO ITSASAURRE PLAZAN

10:00 OROIMENAREN TXANGOA SATURRARANERA
Ondarroako Historia Zaleak elkartearekin

11:00 ONGIETORRI EKITALDIA

11:15 JOLAS HEZITZAILEAK
Eskulanak, jolas erraldoia, zesta-punta, Nendo Dango,
hankapaluak, dantza tailerra...

11:15 HERRI ERAGILEEN AZOKA IREKIERA

12:00 ARGIAZALEEN TOPAKETA

14:30 HERRI BAZKARIA + BERTSO SAIOA
Eskualdeko eta garaiko produktuekin osatutako menua.
Bazkalostean Bertxio, twitter bidezko bertso saioa, Iratxe Ibarra,
Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitiarekin.
Prezioa: 15 euro (langabetuek, langile prekarioek eta ikasleek 12).
Txartelak eskuratzeko: ARGIA (943-37 15 45 edo denda@argia.eus)

17:00 KALE ANTZERKIA
Abarka taldeak Argia
Egunerako beren-beregi
sortutako antzezlanak

18:00 EUSKAL HERRIKO III.
NORTASUN AGIRI ARROTZ
JAURTIKETA

19:30 KONTZERTUAK
Jon Basaguren
Occhi di Farfalla

Egun osoan zehar, "Trantsizioak" erakusketa + kale animazioa:
erraldoiak, txistulariak, trikitilariak, batukada...

12:00etatik 14:00etara Radixu irratia zuzeneko emanaldia jaigunetik

ESKERRIK ASKO EGITARAUA OSATZEN LAGUNDU DUTEN GUZTIEI

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak
- 10 Net Hurbil
- 17 Hor dena gailu

IRITZIA

- 18 Estitxu Garai Artetxe
- 19 Enrike Diez de Ultzurrun Oihana Etxebarrieta
- 20 Andoni Mujika



Uztailaren 28an ehunka lagun mobilizatu ziren Gipuzkoako erraustegiaren baldintza-pleguak onartzearen aurka. (ARGAZKIA: JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 52 ARGI-KONTRA: MADANI KOUMARE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

SAKONEAN

- 12 | Ana Txurruka: "Sarritan ez gara bazterkeria arriskuan dauden emakumeengana iristen" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Erraustegiaren zorra, negozio txarra Gipuzkoako herrirentzat / Urko Apaolaza Avila
- 27 | Kalamuaren ekoizpen eta kontsumo arduratsua, akusatuen aulkian / Oskar Epelde
- 30 | Konfiantzaren pedagogia, ikasleek eraikitako ikaskuntza metodoa / Iker Oñate Aiastui
- 34 | Argia Eguna: Puntadaz puntada, txikitik eragiten jarraitzeko / Unai Brea, Axier Lopez
- 44 | Juan Gorostidi, Zazpigarren heriotza saiakeraren egilearekin berbetan / Mikel Asurmendi

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Bost urteko hutsunea

2011ko irailaren 21a ez dute Bilboko Errekaldeko auzotarrek erraz ahaztuko. Munduko alkaterik onenaren saria irabazi zuen Iñaki Azkuna jeltzaleak bidalitako hondeamakin eta ertzain saldoak eraitsi zuen Euskal Herriko gune autogestionatuetako ikurretako bat. Kukutza III gaztetxearen 13 urteko bizitzari amaiera emateko arrazoï ofiziala 40 etxebizitzaren eraikuntza zen. Baina bost urteren ostean, hutsune bat baino ez dute ikusten auzoan.

Argazkia: Aritz Loiola



t “EH Bilduren emaitzak onak direla dioten analisiek ezkututzen dute odolustea, urteak joan eta etorri. Are gehiago, estrategia politikoa erabakitzen dutenak berdinak dira, urteak joan eta etorri, emaitzak kaskarrak izan arren”.

Jule Goikoetxea

t “Sozialistak, argi mintzatuko naiz: gu guztioz potrotaraino nago. Ez dakit trena Atotxan hartu eta Pariseraino ez ote naizen joango”.

Andoni Unzuola

t “Gizon hetero, zuri eta burges koadrila hori bozkatu duzuen emakume guztiei, zorte ona opa dizuet eta feminismo pixka bat gomendatuko nizuke”. Irantzu Varela

t “Denak pozik: EAJ, irabazi duelako. EH Bildu, ez duelako galdu. Podemos, sorpassoagatik. PSE, gobernatuko duelako. Kontsolatzen ez dena...”.

Hibai Arbeste

EAJ nagusi hiriburuetan eta udalerri nagusietan


Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaitz

Berde iluna nagusitu da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Bai geografian, baita hiriburuetan eta biztanle gehien duten herrietan ere. EAJk irabazi ez dituen gainontzeko herri gehienetan EH Bildu izan da garaile.

Bilbon EAJk ia 70.000 boto eskuratu ditu, orain lau urte baino 4.500 gehiago eta bigarren indar Elkarrekin Podemosen 23.500 bozak hirukoiztuz. Donostian jeltzaleak igo egin dira eta alde handiz irabazi dute, 30.697 botorekin eta bigarren indar EH Bilduri 12.730 botoko aldea aterata (hauek 3.226 boto jaitsi dira lau urtean). Gasteiz izan da hiriburu lehiatuen: 27.681 boto EAJrentzat, 23.335 PPk, 18.899 Elkarrekin Podemosek eta 17.287 EH Bilduk.

Irun, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hondarribian jeltzaleak izan dira nagusi, eta Araban, Audio, Amurrio eta Agurainez gain, Errioxarekin muga egiten duten herri askotan ere garaile atera da Urkulluren alderdia.

EH Bilduk irabazi duen herririk handiena Errearteria da, eta ondoren ditu Ondarroa, Azpeitia, Hernani, Oiartzun,



Elorrio eta Bergara, batzuk aipatzearen. Elkarrekin Podemos Espainiako presidentetzarako hauteskundeetan lehen indarra izan zen herri askotan, oraingoan ez dute inon lortu.

PSE-EEK zaplazteko handia jaso du, bozen %42 galduta. Lasarte-Oria da mantendu duten herri bakarra, historikoki bereak izan diren beste herri guztiak galdu ditu EAJren mesedetan, hala nola Ermua, Irun, Barakaldo, Portugalete, Zumarraga eta Eibar. PP, nahiz eta balorazio positiboa egin, bosgarren indarra izango da Legebiltzarrean.

Erabakitze eskubidea: “Gauza bat da posizio politikoa, beste bat berau lehenesteko borondatea”

ASIER BLAS, EHU-KO IRAKASLEA

“Eusko Legebiltzar autodeterminazio zaleena izango da hurrengo legegintzaldikoa. Halere, gauza bat da alderdiek gai horren inguruan duten posizio politikoa eta beste bat da erabakitzeko eskubidea lehenesteko borondatea. Ez dirudi Elkarrekin Podemos, izan duen emaitzarekin, gai hau lehenesteko asmoz egongo denik eta antzera pentsa daiteke EAJri buruz. Izan ere, horrelako gaiak mahai gainera-tzeak tentsioa igoko luke eta egun EAJk duen hegemonia politikoa galtzeko aukerak sor ditzake”.



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

EAJren garaipen argia, PSEren amiltzea

EAJk inoizko emaitzarik onenetakoa lortu du EAEko hauteskundeetan. Ia 400.00 boto eskuratu dituzte jeltzaleek, eta 2012an baino bi legebiltzarkide gehiago. EH Bilduk eutsi egin dio bigarren lekuari, eta Elkarrekin Podemos ez da uste adina indarrez sartu Legebiltzarrean. PPK eta PSEk gain behera jarraitzen dute, sozialisten kasuan oso nabarmen.

➤ Araba

ALDERDIA	2016	2012	ESERLEKUAK
EAJ	42.234	40.116	8 (+1)
PP	27.812	29.374	5 (=)
EH Bildu	26.803	34.193	5 (-1)
Elkarrekin Podemos	24.299	-	4
PSE-EE	19.501	30.358	3 (-3)
Abstentzioa	%38,9	%36,4	

➤ Bizkaia

ALDERDIA	2016	2012	ESERLEKUAK
EAJ	238.441	230.204	12 (+1)
EH Bildu	99.270	128.644	4 (-2)
Elkarrekin Podemos	84.034	-	4
PSE-EE	66.376	113.536	3 (-2)
PP	54.923	70.749	2 (-1)
Abstentzioa	%37,2	%35,5	

➤ Gipuzkoa


ALDERDIA	2016	2012	ESERLEKUAK
EAJ	116.989	114.446	9 (=)
EH Bildu	98.181	115.086	8 (-1)
Elkarrekin Podemos	48.338	-	3
PSE-EE	40.262	68.915	3 (-2)
PP	24.622	30.461	2 (=)
Abstentzioa	%38,1	%36,7	

➤ GUZTIRA

ALDERDIA	2016	2012	ESERLEKUAK
EAJ	397.664	384.766	29 (+2)
EH Bildu	224.254	277.923	17 (-4)
Elkarrekin Podemos	156.671	-	11
PSE-EE	126.139	212.809	9 (-7)
PP	107.357	130.584	9 (-1)
Abstentzioa	%37,7	%34,2	

Eusko Legebiltzarraren osaketa

ALDERDIA	2016	2012
EAJ	29	27
EH Bildu	17	21
Elkarrekin Podemos	11	-
PSE-EE	9	16
PP	9	10
UPyD	-	1





MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Espainia ongi doa eta Euskadi ere bai

Xabier Letona

@xletona

Espainia ongi doa, zioen Aznarren PPK bere kanpaina ospetsu batean. Euskadi ongi doa, errepikatzen die EAJk etengabe herritarrei, eta mezua burmuinean iltzatu zaio boto-emaileen %37ri. Boto jeltzalea oinarri sendoa den ideiak, “ongi goaz” ideiak azken lau urteetan sarean harrapatu ditu beste esparru politikotako boto-emaile ugari, hasi PPTik eta EH Bilduraino.

Zentralitate, egonkortasun eta moderazioaren paradigma, EAJk eroso gobernatzeko alfonbra gorria du, alfonbra azpian sartu ezin diren arazo sozialek horretarako aukera izorratzen ez badiote bederen.

Nola egingo du hori? Nahieran. Logikoa, nahieran, logikoa beren moldera gehien hurbiltzen den PSEko makulua baliatzea, eta denak adierazten du hala izango dela. Bide hori PSEren hilobirako bidea izan daiteke, baina gaitza da PSE Elkarrekin Podemos eta EH Bildurekin egiazko harresi soziala eratzten irudikatzea. Eta gainera, ausartuko balitz ere, EAJren eta PPren zentro-eskuinak 38 boto ditu, gehiengo osoa.

Ezkerrak jai

EH Bilduk hegemonia lehiatu zion EAJri 2012ko saioan. Azken hauteskundeetako Podemosen indar erakustaldiak piztu izan du horretarako ametsik aldaketa ezkerretik amestu dutenen artean. Hauteskunde eguna hurbildu ahala, baina, ametsa samur

desegin da, hegemonia lehiari uko egin baitiote EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek.

Egia esan, hegemonia kontuetan pentsatzeko baino, EH Bilduk nahikoa zuen azken boto-zauri mingarrietatik sendatzeko formulen bila jardutearekin. Elkarrekin Podemosek oraindik ere ihes egiten dio EH Bildurekin alde aurretik ezer bateratu saltzeko aukerari; lehiakide izateaz gain, Podemoseko egoitza zentrala Madrilen izateak badu eraginik oraindik.

Emaitzak ikusita, beraz, pentsa liteke denak bere horretan jarraituko duela joko instituzionalean. Ekonomia suspertzen jarriko du indarra EAJk, orain arteko bideari eutsiz. Espainian eskuina zentralistaren indarra ikusita, autogobernuan ezin espero bultzada handirik, are gutxiago Madrilekiko konfrontazioa elikatzeko bada: “Vade retro Katalunia”.

Betor Kolonbiako haizea

Behin EH Bilduren mehatxua gainetik kenduta, gatazkaren amaiera ordenatuaren esparruak har dezake beste indarrik legealdi honetan, batez ere horretarako inoiz baino sostengu sendoagoa izan dezakeelako Eusko Legebiltzarrean.

Kolonbiako bake prozesuaren haizeak dokumental eta erreportajeetarako baino gehiago ere balio beharko luke hemen; areago oraindik Espainian eta Frantzian ia 400 preso direnean sakabanatuak eta baldintza estuetan. Ez da kanpainako gaia izan, baina izan beharko luke legealdikoa.

EKONOMIAREN TALAIAN

Diru-sarrerak eta hauteskunde promesak



Juan Mari Arregi

Hauteskunde kanpainak, finantza krisien erdian, gero eta gehiago ardatzen dira promesa sozio-ekonomikoen inguruan, boto-emaileen interesa hortxe baitago. Euskal hauteskundeetako kanpaina ere gai horiek izan dira protagonista. Baina ia inork ez du kuantifikatu –eta hori oso larria da– promesak ekonomikoki zer ekarriko duten, eta zehazki nola lortuko dituzten horiei erantzuteko diru-sarrerak.

Ezkerretik eskuinera, alderdi politiko guztiek hitz eman dute enplegua sortu eta langabezia gutxitzea; enplegu duina prekarietateari aurre egiteko, enplegu publikoa lantaldeak bizi-berritzeko. Zenbaitek agindu dute langabezia %10etik jaitea, eta beste zenbaitek milaka lanpostu sortzea. Batzuk eta besteak gazteen arteko langabezia borrokatzearen alde agertu dira; Lanbide Heziketa eguneratzea izan da promesetako bat, baita emigratu behar izan dutenei etxera itzultzeko bideak irekitzea ere.

Berdintasuna prometituta dute emakume eta gizonen artean. Ekonomia produktiboa izan dute ahotan, espekulazioa madarikatuz. Ongizate eredu hobetzeko odontologia eta podologia Osakidetzan sartzea ere proposatu du inork. Denek diote iruzur fiskalari gogor egin behar zaiola eta paradisu fisikaletan dagoen dirua laguntza sozialetarako bideratu behar dela. Pentsioak ziurtatu eta handitzearen alde daude denak, mila eurotik gorako gutxieneko diru-sarrera ezarri gainera.

Bada, orain lurrera jaitsi eta agindutako politika sozio-ekonomiko horiek praktikan jartzeko ordua dute. Eta batez ere, promesak lortzeko diru-sarrerak eta iturri fiskalak bilatu beharko dituzte, batzuk gobernutik, besteak oposiziotik. Ez diezaiotela gero berriz ere Montorori edo dena delakoari errua bota.

PPren gehiengo absolutua berriz ere

GALIZIA. Hirugarrenez jarraian gehiengo absolutua lortu du PPK Galiziako hauteskundeetan: 41 eserleku. Izan ere, 1989tik legegintzaldi bakarrean ez dute izan gehiengo absolutua popularrek. Bigarren geratu da En Marea alderdi berria, Podemos, Anova, EsquerdaUnida eta "marea" izendapenarekin 2015eko udal hauteskundeetan hainbat hiritan garaile izandako taldeek osatua. Boto kopuruan hirugarren, baina En Marearen eserleku kopuru bera-rekin (14), PSOE geratu da, Galizian ere gainbehera nabarmenean. Lau-garren indarrak, BNGk, parlamentario bat galdu du -sei ditu orain-, baina inkestek iragarritakoa baino askoz emaitza hobea eskuratu du.



Alberto Núñez Feijóo izango da berriz ere Galiziako Xuntako presidentea. 2009tik darama karguan.

EFE

Ezkerreko alternatiba asmatzeko dago

Axier Lopez

@axierL

Ortuzarren eta Urkulluren alderdia jaun eta jabe da Bizkaian, eta Gipuzkoa eta Arabako emaitza onen ekarpenari esker eroso jarraituko du agintean. EAEko panorama politikora ohiko laukoteari ezkerreko beste alderdi bat gehitu izanak gehiengo berriak sortzeko aukera iradoki zuen. Baina azken hauteskundearen emaitzek argi utzi dute, gaur gaurkoz, ez dela alternatibarik jeltzaleen proiektuaren aurrean. Ezker abertzaleak, orain bost bat urte lehenik, eta Podemosek, azken aldion, *sorpassoaren* ametsa izan dute, bozen gordinak erakutsi du ordea, epe ertainean, erakundeetan eredu neoliberalari aurre egiteko aukera errealik ez dagoela, ezkerreko indarren eskaintzetan eta jokaeretan aldaketa sakonik eman ezean.

EH Bildu

Behetik gora egiteak ematen duen sentsazio gozoarekin ospatu dute lau eserleku eta 53.000 bozen galera. Espainiako Kongresurako ekaineko hauteskundeetatik hona, 71.000 lagun babsa berreskuratu dute, beheranzko joerari amaiera emanez.

Ahal Dugu

Goitik behera egiteak uzten duen zapore gaziarekin ospatu dute lehen aldiz EAEko hauteskundeetara aurkeztu eta hirugarren indar gisa sartzearen garaipena. Ekaineko emaitza historiko horietatik 179.000 boz galtzea ez zaie samurra egin.

Gipuzkoa

Gipuzkoa da ezkerreko indarren arteko balizko aliantzak duen aukera erreal bakarra epe laburrean. Gipuzkoan EH Bildu eta EAJren arteko lehia estuak, eta Podemosek sozialistei gainera hartu izanak, Batzar Nagusietan bestelako gobernu bat posible egin lezakete.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA



57

jesarleku dituzte erabakitze eskubidearen alde dauden hiru indarrek (EAJ, EH Bildu, Elkarrekin Podemos), Eusko Legebiltzarraren %76.

86.670

boto gutxiago lortu ditu PSE-EEK 2012ko hauteskundeetan baino: %40ko jaitsiera. Hamasei legebiltzarkidetik bederatzira igaro da.

9

jesarleku eskuratu ditu PPK, duela lau urte baino bat gutxiago.



ARNALDO OTEGI, EH BILDU:

"Hemen posible da burujabetzaren aldeko ibilbide orri bat sustengatuko duen gobernu bat osatzea. Posible da murrizketen kontrako politika egitea. Gehiengo bat badago. Hemen posible da presoak etxeratzeke pausoak ematea".



PILI ZABALA, ELKARREKIN PODEMOS:

"Lana tinko eta gogor egingo dugu. Erakundeetan lana egitean gardenak izango gara. Emaitza historikoak lortu ditugu, baina ez gara konformatzen. Ez ditugu ospatuko 11 eserlekuak".



ZERO CIUDADANOS

Espainiako gobernuan sartzeko lehian dagoen alderdiak Hego Euskal Herrian ez du ordezkari bakar bat ere izango. Albert Riveraren mezu politikoak gurean ez du lurrartzerik lortu, eta Galizian PPK jan du osorik.

Hanjinen porrotagatik itsasoan galduta dabilta Olentzeroren opariak



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Hanjin korearrak –itsasozko merkataritzan ari diren konpainia handienetan zazpigarrenak– kiebra jota, olatu artean geratu dira preso Eguberrien aurreko kanpainetarako milaka produktu helmugako kaietan sartu ezinik. Hanjinen itsasontzi erraldoietan zetozen Asia urrunetik Mendebalde kontsumitzaileera, globalizazioaren ikur bihurtu diren milaka kontainerretan metaturik. Krisiaren abuztu honetako ostikada izan da.

540.000 edukiontzi handi utzi ditu porrotak itsaso zabalean edo portuen sarreretan ainguraturik. 14.000 milioi dolar inguruko balioa lehorreratu ezinean. AEBetan *Thanksgiving* eraketak prestatzen ari diren Samsung, Nike, Walmart eta beste hainbat multinazional gotor urduri dabiltz.

Abuztu bukaeran panikozko titularrak irakurri ziren ekonomia globalizatuaren jarraipena egiten duten orrialdeetan, *brok* egin zuenean itsas garraioan dabilen zazpigarren korporazio handienak. Irail amaierara heldurik, alarmak arindu diren arren ez dago batere argi Hanjinen kiebrak mundu osoan zer nolako astindua zabalduko dituen.

Hanjin konpainiak dauzkan 100 pakebot inguruetatik 45 geldirik egon dira, ezin ausartuz kaietan barnatzera edo Suezekoa bezalako kanalak zeharkatzera, batzuetan korporazioaren zorrak exekutatzeko bahitu ez ditzaten, besteetan konpainiak ezin zuelako aurerratu portuko zerbitzuaren prezioa.

1.500 marinel eta zuzeneko beste langileren enpleguak dira zintzilik, 12.000 gehiagorenak Koreako Busan hiriko ontzian. Marinel gatibuen argazki zehatza erakustearren, BBC kate britainiarrak hurbildu da *Hanjin Roma* baporean preso geratutakoak bisitatzen.

Singapurren harrapatu zituen *Hanjin Romako* eskifaikoak abuztuaren 29an beren konpainiaren hondoratzeak. Uztailaren 17an irtenda Mexikoko Puerto Manzanillotik, hara helduak ziren Puer-

to Lazaro Cardenas, Balboa (Panama), Busan (Korea) eta Chiwanen (Txina) eskala eginez. Singapurreko nasan amarraturik abuztuaren 29ko iluntzean heldu zitzaizkien poliziburu bat eta abokatua, jakinaraztera baporea bahituta zegoela konpainiaren zorreatatik eta kaia utzirik itsaso zabalean itxaron beharko zutela. *Hanjin Roma* mugiarazten duten 24 marinelek smartphoneak dauzkate munduarekin harremanetzeko bide bakartzat, ezin lehorrera jaitsi, biziroteko jan-edanak eskuratzera hurbiltzeko baimena noiz lortuko zain.

Baina adituen kezka piztu dute ez mamu-itsasontzietan preso geratutako eskifaiei istorioek baina munduko ekonomiarik Hanjinen hondoratzeak ekarriko dizkioten kalteek, itsasoz mugitzen diren salgaien %8 honen eskuetatik pasatzen baitira. Urtean Hanjinek garraiatzen ditu 3,7 milioi kontainer TEU motakoak ontzi erraldoietan: globalizazioaren ikurretako bat bihurtu diren hogeitasei oineko TEU –*Twenty-foot equivalent unit*– edukiontzi horietatik 10.000 eramateko gai diren ontzi handiak Hanjin berak modan jarriak dira.

“Hanjin Shippingen hondoratzeak ekarriko duen olatua itsas garraioarentzako izango da finantza merkatuentzako Lehman Brothersen porrota izan zena adinakoa. Bonba atomiko handi bat da: horniduren katea astintzen du, globalizazioaren oinarria bera”. Horrela mintzatu zaio *Bloomberg* agentziari Gerry Wang, Itsas Bareko garraioan kla-



sikoetakoa den Seaspan korporazioko buru exekutiboa.

Wangek baditu arrazoiak ezkor izateko, bere konpainiak alokatuak baitira Hanjinek darabiltzan 104 ontzietatik lau, eta orain berreskuratzen lanak edukiko dituzte. Gainerako jarduera ekonomiko gehienak bezala, itsasoko garraioa ere konpainia, kontrata eta azpikontrata sare konplexuz osatzen da. Arazoa, ordea, Hanjin hartzekodunen eta bezeroen mugetatik askoz harago doa.

*Los Angeles Times*ek titulatu duenez, kiebra honekin erakusten du muturra oraindik zatirik handiena ikusi ez zaion *iceberg*ak: pleitasarietan dagoen nahas-mendua. Itsasozko garraioaren prezioak aspaldi honetan kosteen azpitik ibili dira, Hanjin porrotak ur azalera atera duen arte arrain ustela.

Merkeegia garesti pagatzen da

Merkantzia gutxiegi ontzi ahalmen gehiegirentzako, horra zeren beldur diren Hanjin ispiluan beren buruak ikusten dituzten erraldoiek. Ontzi konpainiek 2000ko hamarkadan handitze planak egin zituzten gero bete ez diren hazkunde aurreikuspenen gainean.

Ez sinetsi atzeraldia –oro har krisia– amaitu dela dioten politikariek. 2016an munduko sal-erosketak ez dira handituko %3an ere, aurrez iragarritako %4tik urrun, zer esanik ez 2008 aurreko %6 hartatik. Mendebaldeko portu askok trafikoa galtzen jarraitzen dute eta konpainiek dirua galtzen. 20 oine-



Tim Rueren argazkian, Hanjin korporazioaren ontzietako bat irailaren 4an Kaliforniako Long Beach aurrean ainguraturik, kaira sartu ezinda. Horrelako barku eta edukiontzia dabilta planetako itsasoak zeharkatzen gure kontsumoko produktuz eta horien osagaiez mukuru. Nazioarteko merkataritza ahultzearekin batera egokitu zaie garraio konpainia handiei azken urteotan ontzi berri handiagoak erosteko egindako zorrei aurre egin beharra. Garraioen kosteen merkatzea da mundializazioaren zimentarrietako bat eta asteotako gertakizunek astindu dute.

ko edukiontzi handi baten etekina jaitsi da 2011ko 1.189 dolarretatik aurtengo 776ra. Itsas garraioko konpainiek aurtengo 5.000 milioi dolar baino gehiagoko galerak edukiko dituzte, Drewry Maritime Research elkartearen kalkuluetan.

Salgaien trafikoa behera eta hura garraiatzeko ontzien ahalmena gora, aurrera egiteko konpainiek ez dute ikusi pleiten prezioak jaistea beste modurik. *Low cost* ereduaren oinarritzen da gaurko kontsumo guztia. *Los Angeles Times*ek kalkulatu du klase ertaineko familia bati etxeko jabetza guztiak sartzeko moduko 40 oineko edukiontzi handi bat Kaliforniatik Hong Kongera urez bidaltzea New Yorkera trailerrez eramatearen erdi prezioan ateratzen zaiola.

Hanjinen uberatik bazterra joz murturrekoa hartzeko hurrengotzat aipatu dira Japoniako Nippon Yusen eta Koria-

ko Hyundai Merchant Marine konpainiak; burtsan balioaren hiru laurdenak galdu dituzte. Eta itsasozko garraioen tarifak ere arin garestitu dira irailean barrena: ozeanoa zeharkatzen duten alimaleko trafiko horientzat urte sasoirik beroena udazkena da, herrialde aberatsetako neguko festetako kontsumoaren ataria, eta ekoizleek bezala banatzaileek seguritatea bilatzen dute.

Resilience webgunean Kurt Cobbek interpretatu du abuztuko istripuaren mamia: "Hanjinen kiebrak erakusten du *just-in-time* banaketaren efizientzia azken finean ez dela hain efizientea". Eraginkortasunaren izenean, kosteak zeinek baino zeinek gehiago argaldu nahian enpresa guztiek beren inbentarioak ia desagertzeraino murriztu dituzte, eta edozein eskariri berehala *-just-in-time-* erantzun ahal izateko logistika

eremuez gain garraioak berak bihurtu dituzte biltegi ibiltari, kamioiak eta itsasontziak, informatikak eskaintzen duen laguntza handiarekin.

Biltegietan gero eta erreserba gutxiago edukita, *zero stock* estrategian estu harrapaturik, horniduren kate konplexuan Hanjin konpainiarena bezalako istripu bat gertatzea amesgaizto bihurtu daiteke. Edonor eta edozer zintzurretik harrapa dezake, izan norbere familia edo ospitalea, inon ez delako hiru egun baino gehiagoko janaririk gordeta.

Erresilientziarik ezin da *just-in-time* eta *zero stock*ekin, arazo larriei aurre egiteko gaitasuna kosta egiten da. Baina globalizazioa ez doa erresilientziatik. Finantza sistemak eta politikariek lezioa ikasi ez duten moduan Lehman Brothersekin eztaba, banaketa sisteman ere susto gehiago ikusteko gaude. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Ana Txurruka, berdintasun teknikaria

«Sarritan, berdintasun politikekin ez gara bazterkeria arriskuan dauden emakumeengana iristen»

Militantzia eta instituzioa gurutzatzen diren lekuan jardun da Ana Txurruka azken hamarkadan, buru-belarri. Oreka zailean, eutsi dio: kalean, Medeak taldea eta transfeminismoa izan ditu ardatz; lanean, berriz, ahalik eta emakume gehienengana eta askotarikoengana iristea, eta puntu komunak abiapuntu lan egitea.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Berdintasun teknikaria zara. Nolatan?

Humanitateak ikasi nituen, etorkizunik eta lan aukerarik gabeko karrera, eta bukatu eta gero ez nekien zer egin. Ni jada feminista nintzen, militantzian hasi berria, eta banekien mundu hura gustatzen zitzaidala eta gustatuko litzaidakeela horretan lan egitea. Justu urte horretan sortu zuten EHUKo Berdintasun masterra eta han sartu nintzen, ez bainuen ikerketan aritzerik nahi. Gauza handia izan zen niretzat, bai ikasketa aldetik bai pertsonalki.

Zer ikasten zenuten?

Eduki aldetik, berdintasun politikei zuzendutako masterra da eta feminismo instituzionala lantzen da. Bazegoen beste eduki akaso ez hain nabarmena: bote-retzeko tresna oso potentea izan zen eta kontzientzia ere garatu genuen. Urtez urte galdu den arren, interes politiko feminista handia geneukan bai sortu zutenek bai ikasten genuenok.

Akaso orain egonkortuago dago lanbidea eta horregatik aldatu da?

Normalizazio prozesu bat egon da eta nik uste dut hori feminismoaren lorpen bat izan dela, eta arrakastatzat hartu behar dugula, baina kasu batzuetan normalizazio horrek eduki politikoa leundu du. Hasierako berdintasun teknikariena oso jardun militantea zen.

Zergatik hartu behar dugu arrakastatzat?

Instituzioek ardura bat daukate berdintasuna sustatzeko eta matxismoarekin amaitzeko, eta ardura hori zehaztu beharra dago, eta baliabideekin lagundu. Iruditzen zait feminismoak lortu duela instituzioetan sartzea, eta borroka hori egin ez balitz, oraindik ere berdin jarraituko lukete erakundeek. Gero, pentsa dezakegu nola egiten ari diren gauzak, nahikoa egiten ote den, baina ezinbestekoa iruditzen zait feminismoa edo berdintasun politikak instituzioetan sartzea.

Zer aldatu da, adibidez?

Orain dela 15 urte udal bat ez zen behartuta sentitzen erasoen kontrako kanpaina egitera, edo hezkidetza sustatzera, edo emakumeentzako jabeakuntza tailerrak eskaintzera... Orain, nahiz eta alderdi politiko askorentzat lehentasunezko gaia ez izan, ez dira ausartzen horrelako gauzei ezetz esaten. Kontua da azalean gelditzen dela sarri, eta horretan sakondu beharko dugula, baina aurrera egin dugu, dudarik gabe.

Zer moduzkoa izan zen zure estreinako teknikari lana?

Europar Batasunak diruz lagundutako proiektu batean hasi nintzen, Urola Garaian, etengabeko hezkuntza sustatzeko, genero ikuspegiarekin. Lana beste errealitate bat da, ikasketetakoa ez bezalakoa. Oso oroitzapen onak dauzkat. Askok ikasi nuen nire lankideari esker, ez dakit hainbeste teknikari gisa edo pertsona bezala.



Ana Txurruka

1979, Ordizia

Hamabost urte daramatza berdintasunaren alde buru-belarri lanean. Donostiako Udalean egin ditu zortzi, eta hiri horretako Emakumeen Etxea du lorpen kuttun eta bulego; Medeak talde transfeministako militantzia, berriz, iparrorratz.

Bestalde, teknikari hasi nintzenean ohartu nintzen jendeak etengabe jaritzen zuela auzitan nire lana.

Zergatik?

Beti sentitu izan dut kafe-orduko gaitzat jotzen dela berdintasunaren auzia. Edo zeinek esan dezake edozer gauza horren inguruan. Beti egon da tipo bat, ardurak zeuzkan tipo bat, txistek egiten. Adibidez, hizkuntza ez-sexistaren harira, nagusi batek esan zidan: "Eta orain zer, *hola* eta *hola* esan behar al dugu?". Giza baliabideetako sailean ariko bazina lanean, ez dut uste halakorik esango zizuketenik. Gaztetan odola berotzen zitzaidan, baina orain ikasi dut beste era batera egiten aurre halako gauzei. Era berean, urteekin, zilegitasuna lortu dugu eta jendea ez da hain erraz ausartzen horrelako gauzak esaten.

Arrasateko Emakumeen Txokoan ere aritu zinen.

Erreferente handiak izan dira, besteak beste, Ermuko eta Arrasateko emakumeen etxeak. Ezinbestekoa iruditzen zait, berdintasun politiketan, jabekuntza lana egiteko espazio propio bat sortzea. Horri beste hainbat politika gehitu behar zaizkio, noski, zeharkako politikak eta udal barruan egin beharrekoak, baina uste dut emakumeen etxeak hobeto bizitzeko tresnak ematen dizkizula. Batzuetan balio dizute, beste batzuetan ez hainbeste, baina egote hutsa bada zerbait. Halaxe da Donostian ere. Ez dira hiriko emakume guztiak etortzen, baina badakite hor dagoela, erreferente bihurtzen da, tartean behin etor daitezke proiekturen batean parte hartzera...

Caritasen jardun zinen gero.

Bai, ez nuke berehala pentsatuko hantxe arituko nintzenik, Bizkaiko parroikia guztietan formazioak ematen. Oso positiboa izan zen Caritasen gisako erakunde batean lan egitea, gustatzen baitzait egoera okerrean daudenekin jardutea, eta kasu honetan egoera oso zaurgarrian dauden emakumeekin nenbilen. Gainera, asko inplikatu nintzen boluntarioekin, langileekin, baita erabiltzaileekin ere. Ondo ikasi nuen emakume guztien egoera ez dela berdina, oso behar ezberdinak dauzkagula, eta erantzunak ere halakoak behar dutela izan: bakoitzari berea. Masterrean lantzen genituen gaiak emakume profil

jakin baten beharrei erantzuten zieten, eta Caritasen ezagutu nuen jendeak ez zeukan zerikusirik profil horrekin.

Eta ondo hartu zituzten zuk eramandako gaiak?

Ba bai! Adibidez, asko gustatu zitzaidan mojekin indarkeriaz eta abar hitz egitea. Gauza asko konpartitzen genituen, eta haiek ondo baino hobeto ezagutzen dute emakumeen eguneroko errealitatea, ez dira epelkeriatan ibiltzen. Oso garbi neukan huraxe zela inportantea: puntu komunetatik abiatuta egin behar genuela lan, eta horiek indartu.

Kalea eta bulegoa

"Militantziak eta lanak elkar elikatzen eta aberasten dute. Hala ere, nire kasuan, kaleak eman dio gehiago bulegoari, alderantziz baino. Medeakek eman dizkit nire printzipioak, balioak eta irizpideak. Haiekin egin naiz feminista".

Arteleku

"Paul B. Preciadok esan moduan, instituzio bat ez da erakunde abstraktu bat; aitzitik, pertsonak egiten dute instituzioa. Artelekun zenbait pertsona elkartu ziren, eta horregatik sortu ziren halako gauza indartsuak".

Formazio asko eman dituzu. Zer irakasten da halakoetan?

Saiatzen naiz berdintasuna eta dena delako gaia uztartzen. Adibidez, emakumeentzako ekintzailatza ikastaroetan berdintasun modulua ematera joaten nintzen, eta teoriari buruz aritzen nintzen, noski, baina hor neukan kontzientzia pizteko grina ere. Ikasleen gauzak astindu nahi nituen. Pertsonala politikoa da, ezta? Bada, enpresa berrietako kontziliazio neurriak aipatuko ditugu, noski, baina ikus dezagun ea nola kontziliatzen ditugun etxe barruko eta kanpoko lanak. Emaizta askoz garran-

tzitsuagoa da inposatu dizkiguten genero rolak zalantzan jartzea, berdintasun legea ikastea baino. Oro har feedback positiboa jaso dut, emakumeekin aritu naizelako batez ere.

Eta gizonekin?

Bestelakoa da. Donostiako Udalean ari nintzela, bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako laneratze programa batean aritu nintzen. Haraxe joan nintzen, alai, berdintasun formazioak ematera, eta soldadura ikasten ari ziren gizona beteta zegoen, sekulako motxilekin eta sekulako zailtasunekin denak ere. Han zaplazteko handiak hartu nituen: nire *powerpointak* eramane nituen, eta batzuek ez zekiten ia irakurtzen. Indarkeriaren gaia ere landu nuen, eta noski, kolektibo errazekin zenbait gauza aise doaz baina oso kolektibo zailekin, bada... Gizon horiek jaiotzatik zeukaten harremana indarkeriarekin, eta nik indarkeria planteatzea oso potentia izan zen. *Te doy mis ojos* filmeko eszena batzuk ipini nituen eta tipo bat izugarri haserretu zen eta joan egin zen, berak bizi izan zuelako indarkeria hori, eta orain berak egiten zuelako.

Bazterkeria arriskuan dauden emakumeekin aiseago topatzen dut elkarlanerako puntu bat; gizonekin zailago. Hala ere, uste dut nire lanean halako kolektiboekin lan egin behar dugula. Emakumeekin ere bai, jakina, kolektibo horietakoek dauzkatelako behar handienak eta haiek daudelako egoera kaskarrean. Sarritan, berdintasun politikekin ez gara emakume horiengana iristen.

Zenbat denbora daramazu Donostiako Berdintasun Sailean lanean?

Zortzi urte, orduan atera zen lan-poltsa. Zalantzak izan nituen, baina azkenean animatu nintzen, udaleko baldintzen-gatik eta zegoen jendea interesatzen zitzaidalako. Ainhoa Beola zegoen berdintasun zinegotzi, Agurtza Zubero aholkulari, eta politika feminista erreal bat bultzatzen ari ziren.

Hor konturatu nintzen zer garrantzitsua izan zen feminismoak aldarrikapen hau egitea, berdintasun sailak egotea, aurrekontuak lortzea berdintasun politikak ezartzeko... Hiru ardatz klabeak batu ziren, gainera: politikari feministak, berdintasun teknikari feministak (militanteak, asko) eta mugimendu feminista indartsua, kanpotik eragiten.

Medeak talde transfeministako kide ere bazara. Nola sortu zen talde hori?

Plazandreok taldean hasi ginen. 20 urte zeramatzen haiek feminismoan militatzen, eta asko ikasi nuen. Bi urtean ez nuen ahorik ireki asanbladetan, soilik belaki baten moduan aditu eta ikasi. Une batean beharra sentitu genuen zer bait propioa sortzeko, bai edukietan bai formetan. Plazandreoken dinamika asteroko bilerak egitea eta gai-ordenari jarraitzea zen. Guk, ordea, 20 urte geneuzkan eta nahi genuen hitz egin larrua jotzeari buruz, gure gorputzei buruz, gure familiarekin geneuzkan arazoei buruz... Barren-huste kolektiboa behar genuen eta Medeakek eman zigun arnasa. Plazandreok taldekoekin ere hitz egin genezakeen, noski, baina behar genuen hori guztia elkarrekin bizi, badakizu, 60ko hamarkadako auto-kontzientzia taldeetan bezala.

Eta gero?

Hasierako garai introspektibo hori pasata, kanporantz hasi ginen lanean, kalean ekintzak egiten, eta, gero inflexio-puntu handi bat izan genuen: Arteleku. Lauzpabost jardunaldi egin ziren han eta beste feminismo bat ezagutu genuen, Euskal Herrian ez zegoena. Feminismo queerra topatu genuen. Bat-batean ate pila bat ireki zitzaizkigun. Ez zen zehatz-mehatz gure testuingurua, baina erantzun pila bat eman zizkigun.

Adibidez?

Drag king tailerrek sekulako eragina izan zuten gudan. Drag queenak gizonak dira, normalean maritxuak, trabestitu egiten dira, eta emakumetasun hiperboliko bat agertu. Drag kingekin hori egiten dugu baina alderantziz: bolle-rook maskulinitate hiperboliko batekin



“Beti sentitu izan dut kafe-orduko gaitzat jotzen dela berdintasunaren auzia”



meta!
KULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lehen, Sareak eta
Kontzientzia Departamentua

OBAIN KULTURA

Zurekin META!

Zure laguntza behar duten 20 kultura-proiektu daude kulturak META! egiteko Gipuzkoan. Har ezazu parte crowdfunding-kanpainan eta ematen duzun euro bakoitzeko Kultura Departamentuak beste bat jarriko du, 3.500 euro gehienez ere.

meta.gipuzkoa.eus webgunean daukazu informazio guztia META! egin dezazun.

Kultura + Gipuzkoa = META!

FUNDACIÓN GOTEIO

trabestitzen gara eta ikusten dugu nola eraikitzen den maskulinitatea, hasi keinu txiki eta txoroenetatik, gorputzarekin eta jantziekin buka.

Lehenik eta behin konturatu nintzen zer barneratua neukan feminitatea. Feminista eta lesbiana nintzenez pentsatzen nuen oso gaudituta neukala, baina bai zera! Barru-barruan daukagu txertatua. Bestalde, orduan hasi ginen Medeaken maskulinitatea lantzen, ordua arte guri ez baitzitzaigun batere interesatzen. Maskulinitate patriarkala ez dugu gustuko baina gure mundu bolleroan badaude bestelako maskulinitate batzuk, eta horiei bai, egin nahi diegu tira, maskulinitate patriarkala jartzen baitute zalantzan, gainera.

Indarkeriari buruz ere hausnartu duzue.

Gai hori beti dago presente, emakumeok askotan feminista egiten gara indarkeriarekin topo egiten dugunean, orduantxe kolpatzen zaitu-eta benetan errealitateak. Medeaken beti saiatu gara pentsatzen ea nola erantzun indarkeriari eta hamaika modutan egin dugu: amorruz, haserre, nola kudeatu jakin gabe...

Azken urteetan, feminismo instituzionalak indarra hartu duenean, ego-kitasun politikotik abiatuta, diskurtso bat garatu da gaiaren bueltan, eta gizarte honetan denak daude indarkeriarekin amaitu nahi dugu ez poliziaren bitartez, baizik eta beste bide batzuetatik. Hori, politikoki, baina norbana-koari dagokionez, gauez ateratzen gine-nean-eta, guretzat oso-oso inportantea

Postpornoa

"Feminismo klasikoan, pornoa txarra da, eta kito. Feminismo queerrari esker ikasi genuen porno feminista egin zitekeela eta oso askatzailea izan zen. Bestelako sexualitateak eta gorputzak islatzen ditu, gainera".

izan da ildo hori: eraso matxisten aurrean, erantzun, eta erantzunok kolektiboki babestu, tinko.

Amaitze aldera, orainaldiari erreparatuko diogu. Badirudi loraldian dagoela mugimendu feminista.

Loraldian dago eta ni, berriz, gainbeheran-edo, erdi jubilatzen. Orain dela urte batzuk konturatu nintzen atsedean hartu behar nuela. Lana, militantzia... nire bizitza oso-osorik hartzen zuen feminismoak, ez neukan beste ezer. Une batean konturatu nintzen akaso beste gauza batzuk ere egin nahi nituela, akaso denbora behar nuela pentsatzeko ea zer egin nahi nuen. Orduan, erritmoa murriztu nuen eta oso ondo etorri zait.

Orena da jende berria ikusten dudala, eta eskerrak! Bilera batera joaten banaiz eta orain dela hamar urteko jende berbera topatzen badut, *malaostian* jartzen naiz, horrek esan nahi baitu badagoela arazoren bat espazioarekin. Baina leku eta egitasmo berriak topatzen ditut eta nik neuk, orain, ez nituzke egingo, baina izugarri gustatzen zaizkit. Oso pozik nago feminista gazte asko daudelako. ■

2016/2017

zientziaazoka

elhuyar da

Gazteek garatutako proiektuen azoka hastera doa!

2016-17 ikasturtean zehar, taldeka, gazteek galdetu, ikertu, diseinatu, eraiki, eta bizipenak izango dituzte.

Bi modalitate: ikerketa-proiektuak edo proiektu teknologikoak

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

bizi

ikerketa!

Norentzat?

12 eta 18 urtera bitarteko ikasle gazteei zuzendutako ekimena.

Nola hartu parte?

Izena emateko eta informazio gehiagorako, sartu <http://zientzia-azoka.elhuyar.eus> webgunean, eta segi jarraibideei.

Eta guztia ikertzaile profesionalen aholkuekin!

Eman izena irailaren 19tik aurrera!

Antolatzailea

Babesleak

Kolaboratzaileak

AUTONOMIAREN AROAN, NAZIONALOI galarazten ziguten
elkarrekin bozkatzea...

Elizondo...!?!

...Hemen ez...

...BEGIRA EZAZU
FRANTZIAR
PRESIDENTZIALETAN...

...PARTIDO arrotzek berriz, haizu zeukatelarik
euren burua presentatzea

ZERTARAKO
BEHAR DU
EUSKARA

(GURE) ADMINISTRAZIO
PUBLIKOKO FUNTZIONARIOAK?
KORROK
PURRUST
GRAUSK

ETA
ONARTU
EGITEN
ZENUTEN?

EZ ONARTZEA
ERABAKI
GENUEN
ARTE...

GERO OSO
LASTER
GEATATU
ZEN DENA...

CK

Konta ie zadazu



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Zuk, irakurle, nik baino gehiago dakizu. Hau irakurtzen ari baitzara Eusko Legebiltzarreko hauteskunde-
deen emaitzak eskuartean dituzula, eta ni, berriz, oraindik kanpainako azken egunak falta direnean ari naiz idazten. Beraz, alferrik hasiko natzaizu pronostiko liluragarriekin. Jazotakoa ez jakiteak eman diezadakeen abantaila apurrari etekina ateratzea baino ez zait geratzen: orain artekoaren perspektiba baliatzea. Proposatzen dizudan ariketa erreza da. Zenbait galdera egingo dizkizut; erantzunen arabera, balorazioa zure esku. Ea ba, konta ie zadazu:

Nork irabazi ditu hauteskundeak?

Lehengo lepotik burua? Eta zer diote alderdi ezberdinen eserleku batuketek? Ba al dago pakto bidez gobernu alternatiba osatzerik? Duela ez asko, bi hilabeteren kontua dela esango nuke, EAJri aurre egin ziezaiokeen balizko gobernu akordioaren hipotesiak bazuen bere indarra. Bada, hauteskunde atarian gauden honetan, inor gutxi ikusten du hori posible izango denik. Horra hor inkestek eraikitako errealitatearen garrantzia. Ikerketa demoskopikoen bidez gero eta gehiago bideratzen dituzte gure usteak, eta, pulamentuzkoak izan ala ez, uste horiek nola baldintza gaitzaketan eta jokabidea nola bidera dezaketan aski aztertu eta frogatuta dago.

Zer diostazu erabakitze eskubideari buruz? Gehiengo nabarmena lortu al dute erabakitze eskubidearen aldeko alderdiek? Baiezkoan nago. Eta, hala bada, benetan uste al duzu legeingintzaldi honetan aurrerapauso nabarmenak emango direla zentzu horretan? Galdera inozoa litzateke inozo izateaz nekatuta ez bageunde. Ezezkoan bazau-de, ondorioak zuk zeuk atera ditzakezu.

Ez dira hauteskunde demokratikoak izan. Hautagai izateko eskubidea ukatu zaio Arnaldo Otegi, hau da, EH Bilduk aukeratutako pertsonari

Eta ezker/eskuin ardatza? Nora jausten da balantza? Zalantza egingo duzu agian alderdi batzuk batean ala bestean kokatu behar dituzun. Akordio bila abiatzeko abiapuntua izan daiteke? Eta erantzuna ezezkoa bada, zergatik ez? Aurreikusi besteko plastatekoa hartu al dute unionismo tradizionalaren

ordezkariak (PSEk eta PPk)? Badirudi gauzak ezer gutxi aldatzen direla, baina pentsatu baino askoz gehiago aldatzen dira. Sinestezina irudituko litzaiguke urte batzuk atzera egingo bagenu. Eta unionismo berriak? Zer moduzko emaitzak lortu ditu Elkarrekin Podemosek? Marka higituz doakie ala aise lortu dute aurretik lortutako marka?

Zenbat emakume parlamentari izango ditugu? Dezente, seguruena. Aldarri feministak hasi dira fruituak ematen, ezta? Nago Eusko Jaurlaritzara begirako kanpaina honetan aurrerapausoa eman dela bai emakume kopuruan, baita roletan ere. Ezin ukatu, ostera, egiteko asko geratzen dela oraindik eta alderdien artean ere ezberdintasun handiak daudela gai honi dagokionez. Zer deritzozu?

Zure erantzunak irudikatzen gustura nabilen arren, orain alde aurretik argi dudan gauza bakarra kontatu behar dizut: ez dira hauteskunde demokratikoak izan. Hautagai izateko eskubidea ukatu zaio Arnaldo Otegi, hau da, bigarren (edo hirugarren?) geratu den taldeak, EH Bilduk, aukeratutako pertsonari. Horrek esan nahi du oraindik ere herri honen etorkizuna togadun poliziak baldintzatzen duela herri-borondarearen gainetik. Txarrena da, hamaikatxo ikusiak garen ez eta asaldagarritasunaren muga guztiak gaintuta ditugunez, lozorro gaudela horrelako kanpo injerentziei erantzuteko. Baina, noiz arte? Itaun horren erantzuna ez dute hauteskunde batzuen emaitzek ebartziko, euskal herritarren berresnatze kolektiboak baizik. Hortaz, orain arte egin dizudan galderarik garrantzitsuena errepikatuko dizut. Noiz arte? ■

Sosa jokoan



Enrike Diez de
Ultzurrun Sagalá
ITZULTZAILEA ETA
KAZETARIA

Duela hiruzpalau astetik hona, arloz arlo bilerak egiten ari dira Nafarroan, aldaketaren gobernuari eusten dioten lau alderdiak, heldu den urteko aurrekontuetan dirua nola banatu adosteko. Beharrak handiak baitira, eta sosak, aldiz, gutxi, eta ez da erraza izanen, ezta hurrik emanda ere, eskaera guztiak asetzea.

Kontuan hartu behar da, gainera, sos alde izugarria bideratu behar dela UPNk utzitako diru zuloak estaltzera. Ahal Duguk eta Ezkerrak arlo soziala lehenesten dute bertze ezeren gainetik; gizarteratzeko errenta, zehazki. Horixe erraten dute behin eta berriz. Baina erreparatu gabe kontu soziala ere badela, konparaziora, dirua landa ingurunera bideratzea, Nafarroako eskualde jakin batzuk jendez hustu ez daitezen, ibar aunitzetan adineko jendea baizik ez baita bizi.

Euskara eta jende euskaldunen eskubideak, ordea, ez dira inola ere lehenesteko modukoak aipatu bi talde horientzat; hori gauza jakina zen, eta bileretan berriz ere agerian gelditu da. Izan ere, gaia mahai gainera atera bezain laster, erreloak hasi dira berehala. Eta eztabaidagaia ez da Euskararen Legea aldatzea, Ezker Batuak argi eta garbi adierazi baitu aldaketa ororen kontra dagoela, eta ez duela inolako aldaketarik bermatuko legealdian. Orain eztabaida dirua da, hau da, zenbat diru eman Euskarabideari.

Euskalgintzako taldeek eskaera zehatza egin dute aurrekontuei begira; aurtengo emandako dirutzaren halako bi bideratzea heldu den urteko aurrekontuetan, euskalgintzan diharduten taldeak itoduratik ateratzen hasteko (euskal komunikabideak, helduen euskalduntzea eta abar). Hori entzun bezain laster, Batzarrekin batera Ezkerra osatzen duen Ezker Batua taldeko ordezkariak bileretan adierazi dute euskarari sos aunitz eman zaiola aurtengo, eta –betiko leloa– lehentasunak bertzelakoak direla.

CCOO sindikatuaren esku luzea dago jarrera itxi horren atzean, edo bertzelaren erranik, hain markada sail luzean Nafarroan indarrean egon den (eta arlo aunitzetan bere horretan dirauen) erregimenaren zutabe nagusietako bat. Erregimena erraten denean, sosa da; hau da, hemen sekulako egitura eratua egon da Nafarroako diruak adiskideen artean banatzeko. Eta horixe jarri du aldaketak arriskuan. Horregatik oldartu zaizkie zakar baino zakarrago Nafarroako Gobernuari eta hainbat udali, ez baitute dirua galdu nahi, eta CCOO sindikatuak ere sosak atxiki nahi ditu.

Ikusteko dago ea egitura hori arriskuan jarritzeaz gain, egiazki sosik gabe gelditzen ote den sindikatu hori, eta bertzeren bat ere bai. ■

Nola ikusten gaituzte estralurtarrek?



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Virginia Woolfek bere buruari galdetu zion behin, nola ikusiko gintuzkete gure egunkariak irakurriko lituzketen estralurtar batzuek. Batez ere gizonak existitzen direla pentsatuko lukete eta politikaz, ekonomiaz eta antzekoez hitz egiten dugula etengabe.

Begira batzordeak (Emakunderen baitako komunikazio behatoki lanak egiten dituen taldea da hau) egindako gomendio sorta sinatu zuten hainbat komunikabidek orain hilabete batzuk, baina sinaduratik harago, askorik ez da aldatu haien egunerokotasunean. Rioko Olinpiar Jokoetan emakume kirolarien aipamen sexista ugari irakurri behar izan ditugu (gomendioak sinatutako

komunikabideetan ere bai), hauteskunderen inguruan emakume politikariei eta gizonezkoiei eman zaien tratua ez da beti berdina izan (Twitterreko @ikusgaitasuna behatoki digitalak adibide modoa bildu ditu ere kanpainan zehar). Adibideak, tamalez, soberan ditugu.

Badago ordea, bidea egiten ari denik, eta horri ere aitortza zor diogu. Gure esku dago, kontsumitzaile garen heinean, prentsa horren kontsumotik (edo kontsumo ezetik) bidea urratzen dutenei eskua eman eta besteei aldatzen hasteko eskatzea. Hurrengoan, estralurtarrak etorriko direnean, argazki osatuago batekin topo egin dezaten behintzat. ■

Euskal ekonomia

Aspalditxoan, hainbat eragile dabil beste ekonomia baten beharraz hitz egiten. Arizmendiarrak Kristau Fundaziokoak ere buru-belarri sumatzen ditut zeregin horretan. “Kooperazioaren ekonomiaz” dihardute eurak eta, beraiei irakurrita eta entzunda, horretaz idazteko gogoia piztu zait.

Ekonomia proposamen honen ezaugarriak ez dira berriak, lankidetzaren esperientzietan aurkituko ditugu han eta hemen. Beraiek bereizgarri hauen sintesi erabilgarri bat egin dute. Nagusiki, enpresa humanizatzearaz dihardute, pertsona erakundearen erdigunean jarritz. Enpresa komunitatearen eragile bezala ulertzen dute. Era berean, eredu honek autoeraketa sustatzen du, barne demokrazia eta parte-hartzea bilatzen ditu, eta enpresen arteko interkooperazioari garrantzi handia ematen dio.

Gai honetara hurbilpen bat egiteko, baieztapen honekin hasiko naiz: herri baten edozein gizarte-arlo nuklearerako berezko eredu izatea ikaragarri inportantea da. Eta herri hori txikia bada, gehiago. Ekonomia zein enpresa arloan ere horixe gertatzen da. Baina zein izan behar da eredu ekonomiko hori gurean? Euskal Herrian nahikoa arrazoi dago esateko kooperazioan oinarritutako ekonomia guztiz bat da-



Andoni Mujika

IRAKASLEA

@mujikaandoni

Euskal Herrian nahikoa
arrazoi dago esateko
kooperazioan oinarritutako
ekonomia guztiz bat
datorrela gure izaerarekin

torrela gure izaerarekin. Herri honen nortasunera, esperientzia kolektibora, kulturara, ekintzailetasun antolatura eta baloreetara egokien hurbiltzen den ekonomia-mota horixe delakoan nago. Ez dugu ahaztu behar herri honek daukan esperientzia pilatua, bere burua lanki-

detzan antolatuz, proiektu oso ezberdinek aurrera ateratzen.

Orokorki esanda, “kooperazioaren ekonomiak” bi ekarpen nagusi egingo lioke gure komunitateari: bata da herri honen konbikzioekin koherentea dela, eta beraz, egitasmoak aurrera ateratzeko motibazioa eta zentzua elikatu egin ditzakeela; eta bigarrena, oso eraginkorra eta arrakastatsua izan daitekeela termino ekonomiko zein sozialetan.

Edozein modutan, kooperazioaren ekonomiarekin ez da bilatzen diskurtso borobil bat, itxia eta perfektua, ez. Planteamendu dinamiko eta aldakorra da. Orientabide bat da, norabide zabal bat, beste antzerako ekimen batzuekin konfluentzian jardun beharko dena.

Esan dezadan amaitzeko, kontzeptu honek beste bertute bat ere baduela: graduatu egin daiteke, eta dauzkagun hainbat errealitatetara moldatu. Horrela, batetik, kapital-enpresak humanizatzeko balio du; bigarrenik, martxan dauden kooperatibak biziberritzeko eta berrasmatzeko erreminta izan liteke; eta hirugarrenik, kooperatiba berriak sortzeko motibazioerako iturri. Ikus daitekeen legez, iniziatiba batzuk besteak baino anbiziotsuagoak dira, baina guztietan kooperazioaren eta humanizazioaren ideia egongo litzateke barrenean. ■



Moyua

hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

www.tanatorio-guipuzcoa.com

Ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri erroten xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Zure jendea, zure
hedabidea, zure iragarkia:

**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**

ARGIA

943 371545 | publiz@argia.eus | www.argia.eus/tarifak


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

✓ ARGIA
Ez dago gure nafar dute

Urte osoko harpidetza

ARGIA

☐ ARGIA astero, hilean 12€ baino ez.

☐ ARGIA hamabostero, hilean 6,5€ baino gutxiago.

☐ ARGIA hilero, hilean 3,5€ baino gutxiago.

Lehen izena: _____

Bigarren izena: _____

Abizena: _____

Posta kodea: _____

Posta bidea: _____

Posta kutxa: _____

Posta elektronikoa (e-mail): _____

Posta elektronikoa (e-mail): _____



ERRAUSTEGIAREN ZORRA

NEGOZIO TXARRA GIPUZKOAKO HERRIENTZAT

Udazken honetan esleituko du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak Zubietako errauskailuaren lehen fasea. Udazken honetan ere, hainbat udalerrik esku artean izango dute partzuergotik ateratzeko azterketa. Proiektuaren kostuak –mila milioi eurotik gora– eta hori pagatzeko ezarriko diren baldintza gogorrek, hankaz gora jarriko dute hondakinen kudeaketa jasangarrirantz udalerrri horietan orain arte egindako lana. Herritarrak prest al daude ondorengoei halako zorra uzteko?



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Herritar asko bakantzetarako –edo udako behin-behineko lanaldia hasteko– zenbat egun geratzen ziren kontatzen ari zirela, data bat gorriz markatu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak (GHK) egutegian: uztailaren 28a. Ikasurteko azken aurreko eguna aukeratu zuen ikasurteko erabaki inportantea hartzeko, Zubietako erraustegiaren eraikuntza eta gestioa esleitzeko baldintza-pleguak onartzea.

Bateko Gipuzkoa Zutik-en protesta baketsu eta ikusgarriak, besteko GuraSOS elkartearen eta osasunaren aldeko mediku taldearen kritikak, errausketaren kontrako mugimenduak estualdian sarturik zituen uda hasieran Gipuzkoako Aldundiko arduradunak. Uztail amaieran jende gehiena hondartzan izango zela aurreikusi zuen agian GHK-k –Zubietako proiektua bultzatzen dabilen sozietate publikoa da, Aldundiaren eta udal mankomunitateen artean osatua–, baina hala ere ehunka lagun bildu zi-

ren Donostian izara zuriak hartuta *Zuen negozioa, gure minbizia* lelopean, “Gipuzkoan inoiz egin den diru xahuketa handienetako bat” salatzeke.

Hori gertatu bitartean, askoz oharkabeagoan igaro ziren hainbat udaletan ematen ari ziren mugimenduak, 200.000 tona zaborrentzako erraustegiaren proiektuak zertara lotuko zituen jakin ostean.

Hitz modernoak, formula zaharra

Hondakinen kudeaketa udalerrien eskumenekoa da eta horiek mankomunitateetan bildu izan dira. Gero hondakinen kontsurtzioa sortu zuten, hark berriz 2007an GHK sozietatea, erraustegia eraikitzeke. Zentralizatze bidean emandako urratsei, pribatizatzerantz emango direnak gehitu behar zaizkie. Partzuergoaren planaren arabera, 35 urtez kontratista baten esku geratuko dira erraustegia eta herritarren hondakinak. Aldundiko arduradunek *public*

-private partnership edo “adiskidetasun publiko-pribatu” bezala deskribatu dute operazioa.

Ingeleseko hitzez jantziriko formula zahar eta aski ezaguna da. Enpresak zerbitzu publiko bat bereganatuko du, eta errentagarria suertatzen ez bazaio administrazioak bermatuko dizkio etekinak, horretarako herritarrei oinarriko beste zerbitzu batzuk eskaini behar ez badizkio ere. Halakoez ondo dakite Tesalonikan uraren defentsan ari direnek, Txilen pribatizaturiko pentsioak berreskuratu nahian dabiltzan herritarrek, edo Artxandako tunelak igarotzen dituzten auto-gidarien eta bizkaitarren poltsikoek.

GHK-k uztailleko bilera erabakigarria egin aurretik, erraustegiaren esleipenak gipuzkoarrei jarriko dien motxila astunaren berri bagenekien prentsaren bidez: mila milioi eurotik gorako kostua, %10,5eko interesa enpresentzat (ikusi 26. orrialdeko grafikoa), erabileran bai-




*Uztailaren 28an Donostiako Gipuzkoa Plazan
ehunka lagun bildu zen, modu ikusgarrian
salatzeko GHK-k Zubietako erraustegia
eraikitzeko emandako urratsa. Hondakinen
partzuergoak udazkenean onartu nahi du
azpiegituraren esleipena.*

ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ

ERRAUSTEGIA

Zenbat ordainduko dute udalerriek?



no tarifa bakarrean oinarritutako kuota bidegabeak... Ba al dago inor horrelako klub bateko kide izan nahi duenik?

Deloitte aholkularitza etxeak GHK partzuergoarentzat egindako azterketa batek are argiago utzi du nola amarratu nahi dituzten udalak erraustegira. Hamar orrialdeko fiskalizatze txostenean dioenez, Zubietako plantaren eraikuntza eta kudeaketak sorturiko zorra "derrigorrez eta lehen-tasunez" ordaindu behar izango dute Gipuzkoako udalek 35 urtez, beste edozein gasturen aurretik.

Erraustegia ustiatuko duen enpresa pribatuak "salvaguarda" gehiago ere izango du gure hondakinetatik negozioa egingo duela ziurtatzeko. Udal batek partzuergoak inposatutako tarifa ordainduko ez balu, Aldundiak beste kontzeptu batzuetatik "kitatuko" dio dirua -foru funtsetik jasotzen dute uda-

lek urteko aurrekonturako diru poltsa handiena-. Gainera, ezin izango dizkio hondakinak beste inori saldu, merkeagoa eta hobeagoa izanagatik ere. Eta partzuergotik ateratzea erabakiz gero? Berdin ordaindu beharko du zorra, baita banantzeak gainerako udalei sorturiko kalteordaina ere.

Partzuergoan sartzea posible bada, irtetea ere bai. Erraustegiaren esleipena ez da oraindik sinatu eta hainbat udalek iragarri dute aztertuko dutela aukera hori

Baina sartzea posible bada, irtetea ere bai. Esleipena ez da oraindik sinatu eta hainbat udalek iragarri dute aztertuko dutela aukera hori. Hondakin kudeaketan pauso esanguratsuak eman dituzten herriak dira, birziklapen tasa oso altuak dituzte, biztanleko errefus kilo gutxi sortzen dute eta Europako erakundeek eredugarritzat jarri dituzte behin baino gehiagotan. "Usurbilek %83tik gora birziklatzen du, nolatan ez dugu ba aukera hori aztertuko?", dio Xabier Arregi Usurbilgo alkateak.

Zubietan erraustegia egin behar den tokitik oso gertu dagoen Usurbilen (6.000 bizt.) proiektu horren kontrako borrokan nabarmendu izan dira herri-tarrak. Urriaren 21etik 23ra erreferenduma antolatu dute, erraustegiaz Gipuzkoan egingo den lehena: "Oso aintzat hartuko dugu emaitza -dio Arregik- herri-tarren hitza agindu zehatza delako guretzat". Uztailearen 26an udal plenoak mozioa onartu zuen esanez Usurbilek Gipuzkoako "hondakin arkitektura instituzionalean" ez duela tokirik, eta batzorde bat sortzea erabaki zuen aztertze tekniki, juridikoki eta ekonomikoki nola atera daitezkeen San Marko mankomunitatetik. Batzorde horrek memoria bat aurkeztuko du "bi hilabete epean, gehienez ere".

Gauza bera onartu zuten Oiartzunen eta Zaldibian, baita Hernanin ere, hor azterketa udalak berak hartu du bere gain ordea. Abiadura eta tempoak ondo neurtu behar diren aldagaiak dira asuntxo honetan: enpresek hemendik aste gutxi arte dute konkurtsora aurkezteko epea eta partzuergoak obrak urri hondarrean esleitu nahi ditu.

Zama ekonomiko itzela

Udalerri horien *exit*-a gauzatuko balitz, GHK-ko barne orekan zer eragin izango duen jakitea zaila da, baina bistan da beste bazkideei are astunago egingo zaiela errauskailua eraiki eta mantentzea. Eta lehendik aurreikusitako zama ekonomikoa ez da nolanahikoa, ARGIAk eskuratu ahal izan duen dokumentu baten arabera.

Gipuzkoako udal kontu-hartzaile batek simulazioa egin du, lurraldeko herri guztiek 35 urtean, eta urtero, erraustegiagatik ordaindu beharrekoa zein den jakiteko. Horretarako mila milioi euroko zifra "kontserbadorea" hartu du aintzat, enpresek esleipenean beheranzko es-

NORK ERABAKITZEN DU?



Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan ordezkatuak daude Aldundia eta udalak mankomunitateen bidez. Baina GHK-ko batzarretan denek ez dute pisu eta erabaki ahalmen bera, pisu demografikoaz gain, mankomunitatea zein alderdi politikoren kontrolpean dagoen funtsezkoa da balantzak alde batera edo bestera egiteko. Uztailaren 28n erraustegiaren baldintza-pleguak onartzearen alde 89,7 boto egon ziren (grisez) eta kontra 10,3 baino ez (arrosaz), beheko zerrendan ikus daitekeen.

Jose Ignacio Asensio. Gipuzkoako Aldundia. (PSE) 👍👍👍👍👍👍
 Imanol Lasa. Gipuzkoako Aldundia. (EAJ) 👍👍👍👍👍👍
 Felix Asensio. Gipuzkoako Aldundia. (PSE) 👍👍👍👍👍👍
 Jaime Dominguez-Macaya. San Marko. Donostiako udala. (EAJ) 👍👍👍👍👍👍
 Miguel Angel Diez. San Marko. Donostiako udala. (PSE) 👍👍👍👍👍👍
 Mikel Pagola. San Marko. Urnietako udala. (EAJ) 👍👍👍👍👍👍
 Iosu Arraiz. Debarrena. Elgoibarko udala. (EAJ) 👍👍👍
 Josebe Astigarraga. Debarrena. Mutrikuko udala (EAJ) 👍👍👍
 Arcadio Benitez. Debarrena. Eibarko udala (PSE) 👍👍👍
 Lander Arregui. Debagoiena. Bergarako udala (EAJ) 👍👍👍
 Unai Elkoro. Debagoiena. Aretxabaletako udala (EAJ) 👍👍👍
 Maria Ubarretxena. Debagoiena. Arrasateko udala (EAJ) 👍👍👍
 Aitor Aldasoro. Sasieta. Beasaingo udala (EAJ) 👍👍👍
 Asier Garro. Sasieta. Itsasondoko udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Mikel Serrano. Sasieta. Zumarragako udala (PSE) 👍👍👍
 Josu Amilibia. Tolosaldea. Adunako udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Amaia Azkue. Tolosaldea. Berastegiko udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Unai Iraola. Tolosaldea. Alegiko udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Igor Iturain. Urola Kosta. Aiako udala (EAJ) 👍👍👍
 Aitor Urresti. Urola Kosta. Getariako udala (EAJ) 👍👍👍
 Mikel Goenaga. Urola Kosta. Zarauzko udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Aitor Bereziartua. Urola Erdia. Azpeitiko udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Ana Azkoitia. Urola Erdia. Azkoitiko udala (EAJ) 👍👍👍
 Xeberio Agirretxe. Urola Erdia. Errezilgo udala (EH Bildu) 👍👍👍
 Cristina Laborda. Txingudi. Irungo udala (PSE) 👍👍👍
 Xabier Iridoy. Txingudi. Irungo udala (EAJ) 👍👍👍
 Juan M^a Altuna. Txingudi. Hondarribiko udala (EAJ) 👍👍👍

kaintzak egingo dituztelakoan –nahiz eta askok ziurtzat ematen duten amaieran proiektuaren kostua askoz handiagoa izango dela; Deloitte berak 1.407 milioi eurokoa izango dela dio–.

Simulazioaren arabera, adibidez, Donostiak 7,4 milioi euro jarri behar du urtero 2051 arte hondakinak erretzeko, Tabakalerari ematen diona halako hiru. Zumarragak 13 milioi euroko faktura ordaindu beharko du oro-

tara epe horretan, Arcelorrek altzairu planta irekita mantentzeko Jaurkitzari eskatzen zion kopuruaren adina. Gipuzkoako herri demografikoki txikienean, Gaintzan, bere 120 biztanleek 167.000 euroko hipotekari aurre egin behar izango diote hemendik aurrera. Hernanin berriz, erraustegiarentzat urtero gastatu beharreko 780.000 euroekin udalak etxetzeko laguntza zerbitzua ordaindu dezake, bertako Zero Zabor

INAKI BEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

11itzulpen

EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN

INGELESETIK
EUSKARARA
ZUZEN

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:
11itzulpen (34) 699 433 121

INTERESDUNAK

Erraustegiaren konkurtsora aurkezteko asmoa agertu duten enpresak

GHK-ren esleipenarekin %10,5eko interesa ziurtatuta izango luke erraustegia eskuratzen duen enpresak. Gutxienez hamar konpainiak agertu du konkurtsora aurkezteko asmoa, baina baliteke euren edo gehiagoren artean aliantzak egitea.

126 MILIOI EUROKO IRABAZIAK ERRAUSTEGITIK

Enpresa ustiatzaileak udalerriei kobratutako tarifak izango ditu diru-iturri. Beste negozio lerroan "bazterrekoak" izango dira, GHK-k dioenez.



taldearen arabera. Baina talde honek beste kalkulu batzuk ere egin ditu Hernaniko kasurako, hainbat datu eskuan hartuta.

Badira sei urte Hernanin (19.000 bizt.) hondakinak jatorrian sailkatzeko atez ateko bilketa sistema jarri zutela. Geroztik %75etik gorako birziklapen tasa dauka eta auzo-konposta ere herriko toki gehienetara hedaturik dago. Baina emaitza berak dituzten beste herri batzuen kasuan bezala, GHK-k ahalegin hori zigortu egiten du saritu beharrean: errefusaren tarifa %11 igo du partzuergoak, eta aldiz hondakin organikoarena %77. Eta hala ere, Hernaniri askoz karuago aterako litzaioke erraustegia izatea oraingo sistemarekin jarraitzea baino, zehazki 21 milioi euro gehiago.

"GHKren kudeaketa eredua ez da ja-sangarria inorentzat eta gutxiago ondo egiten duten udalarentzat –dio Hernanin Zero Zabor taldeak darabilen lan-dokumentu batek-. Oso denbora laburrean hankaz gora joango da azken sei urteotan oso emaitza onekin landu dugun eredua". Hernaniarrek osasunean eta zerbitzuetan ez ezik, lanpostuen galaran –Manu Robles Arangiz fundazioak ikertu duenez, 7.000 enplegu sor daitezke EAEn eta 900 Nafarroan hondakin gutziak jatorrian sailkatuz gero– eta

euren poltsikoetan ere nozituko dute erraustegiak utziko duen zuloa, familia bakoitzak udalari ordaintzen dion zaborraren urteko tasa 95 euro izatetik 300 euro izatera igaro baitaiteke.

Martxoaren 2an Ermuko alkate Carlos Totorikak galdera egin zion partzuergoari ea erakundetik irtetea zenbat kostako litzaiokeen Bizkaiko udalerriari –Bizkaian dagoen arren Debabarreneko kide da–, hondakinak Zabalgarbira eramatea merkeago izango zutelakoan. GHK-k prezioa jarri eta haren presidente eta Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok jakinarazi zion: 9 milioi euro. Zakuan sartu zituen, besteak beste, erakundeak orain arte pilatu duen zorra –bankuekin sinaturiko swap ezagunak

Hernani erraustegiagatik urtero gastatuko dituen 780.000 euroekin udalak etxez etxeko laguntza zerbitzua ordaindu dezake, bertako Zero Zabor taldearen arabera

barne-, baina baita Zubietako erraustegia eraiki eta ustiatzeak hurrengo bi hamarkadetan eragingo dituen gastuak ere, oraindik esleitu gabe dagoen arren.

Zifra desorbitatu hori mezu garbia izan zen GHK abandonatu nahi duten guztientzat. Hernanin Zero Zabor taldeak hainbat iturriarekin kontrastatu duenez, ordea, 1,4 milioi euroan errenditu daiteke kopurua Hernaniren kasuan, eta asko jota 2 milioitan. Izan ere, kitapenean etorkizuneko inbertsio eta zorrak sartzeari legezkoa ote den oso zalantza dago. Talde honen esanetan "merezi du kudeaketa propioaren alde egitea eta GHKtik irtetea. Han segitzea ruina bat da Hernanirentzat".

Lubaki juridikoa prestatzea da orain, beraz, partzuergoaren saretik irten nahi duten udalen zeregin nagusietakoa. Biharamunean hondakinei zein aterabide eman ez dirudi teknikoki hain gaitza izango denik, kudeatu beharreko errefus kopurua murrizta baita beste herri batzuekin alderatuta. Barruan geratzen direnek, erraustegiak utzitako zorraz gain, proiektuaren bigarren fasearen inbognitei egin beharko diete aurre. ■

Irakurri artikulua ingelesez, argia.eus/english helbidean.



Orain urte erdi inguru hiru hilabeteko espetxe zigorra eta 22.000 euroko isuna jaso eta gero, hasiera batean elkarteko kide Goioek ez zuen argazkietan aurpegia erakutsi nahi. Gero iritziz aldatu zen.

Kalamua

EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA, AKUSATUEN AULKIAN

Kalamua erantzukizunez landatu eta kontsumitzeko sortutako elkartek justizia administrazioaren jazarpena jasaten ari dira EAEn (bereziki Gipuzkoan) Madrilen ezarritako irizpideen ondorioz. Orain urte erdi inguru zigor-epaia jaso zuen Urretxuko ACEE-AU elkartearen izan gara euren lekukotza jasotzen, eta bide batez euren lana hobeto ezagutzen.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Oskar Epelde
@oskarpelde

Duela bost bat hilabete Gipuzkoako Lurralde Entzutegiak, lehen instantziako epai bat berretsiz, hiru hilabeteko kartzela-zigorra eta 22.000 euroko isuna

ezarri zizkien Urretxuko ACEE-AU elkarteko bi arduraduni. “Epaiketan ez genuen inongo konponbiderik aurkitu, konponbide bakarra politikoa baita”, dio eurretako batek, Goioek. Azaldu digutenez, elkartearen jarduera gardena dela erakusten duten dokumentu ugari erantsi zioten sumarioari: elkartearen estatutuak, EAEko elkartearen erregis-

troan daudela dioen ziurtagiria, kontsumo aurreikuspenen arabera kalamu landaketa usainik gabekoa egiten dutela dioen txostena...

“Hala ere, hiru orrialdeko epaian, horri kasurik egin gabe, Auzitegi Gorenak emandako azken epai zigortzaileen argudioak hitzez hitz kopiatzen dira”, dio Goioek, trafikatzailatzat jo dituztelako



Elkarteko bazkide gehienek ez dakite non dagoen landatuta kalamua.

minduta. Horrexegatik erakutsi digute zer den egiten dutena: "Arriskua aurreikustea", Goioren esanetan. "Kalamua neurrien barruan ematen da. Supermerkatu batean hogeit hamar litro ron eros daitezke arazorik gabe. Hemen 21 urteko adin nagusitasuna eskatzen dugu". 300 bazkide dituzte, eta 600 bat landare. Eguero gehienez bi gramo har daitezke, urtean 720 gramo.

Diotenez, duela sei urte elkarteak sortu zutenetik nabaria da merkatu beltzak behara egin duela Urola Garaian; bide batez, kideengan kontsumo konpultsi-boa desagerrarazi dute. Elkartean dau-denez geroztik kantitate txikiagoak kontsumitzen dituzte, gero eta txikiagoak elkartean denbora luzeagoa egin ahala.

Espainiako Estatuko eta Europako hazi onenak ekoizteaz harro daude. Kalamuarena industria lokal eta jasagarria izan daitekeela dio Goioek: "Landarea oso-osorik erabiltzen da. Esentziaren olioak tumoreak, esklerosi anizkoitza eta haurren epilepsia tratatzeko balio du".

"Narko-tzat jo gaituzte, baina Mariren 'obreroak' gara"

Gizarte-segurantzari ordaindu egiten diote. Izan ere, lau lanpostu sortu dituzte 24 orduko zaintza behar duen 300 lagunentzako kalamu landaketaz eta banaketaz arduratzeko. Aparteko dirutzarik ez dute lortzen, baina jarduera ekonomikoen zerga ordaintzen dute,

» EAEko Menpekotasunen Legea garatzea eskatzen dute, Uruguai eta AEBetako hainbat estatutan garatutako en-tzako araudi bat sortzeko borondate politikoa egon badagoela uste dute eta

» Ez dute jarri epaiaren kontrako helegiterik, eta isuna ordaindu ordez lan soziala egin ahal izatea eskatu diote epaileari, zer eta orain arte egin dutena garatuz

eta zuzendaritza batzordeko kideetako baten esanetan "ogasun publikoa pozik dago gurekin".

Kalamua aukera handi bat dela eta baserri asko salbatzeko balio dezakeela sinisten dute. AEBetako Eureka herria dute eredutzat; han 20.000 lagunek landatzen omen dute kalamua.

"60 urteko debekuaren ondoren gure jarduera normalizatzea eskatzen dugu". ACEE-AUko kiden iritziz, konponbideak politikoa behar du. Eusko Legebiltzar-rak onartutako Menpekotasunen Legearen garapena eskatzen dute, Uruguai eta AEBetako hainbat estatutan (Kalifornia, Colorado...) garatu dituztenen moduko arau-eredu bat EAEn sortzeko borondate politikoa egon badagoela uste dute eta.

Gardentasunez arituta, hobeto

Menpekotasunen Legeak kalamu-har-tzaileen gizarte-klubak aitortzen ditu, eta Alderdi Popularrekoek ez beste legebiltzarkide denek babestu zuten. Estatuko beste erkidegoetan ez bezala, EAEn "eredu arautu bat lor daitekeela dirudi, hala ere...", diote. Nolanahi, ezkutatzen ibili gabe gardentasunez jokatu nahiago dute, ezagutzak onarpena eka-rriko dielakoan.

Zigortuak izan ziren bi "obreroek" ez zeukaten aurrekari penalik. Izan ere, hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztenez, ez dute jarri epaiaren kontrako helegiterik, eta isuna ordaindu ordez lan soziala egin ahal izatea eskatu diote epaileari. Zer eta orain arte egin dutena garatuz. Esaterako, prebentzioa-ri buruzko irratiaio bat grabatzen ari dira, kalamua hobeto nola hartu azaltzeko. Arriskuez hitz egiten dute saioan, "adibidez, kontsumitu ondoren autoa gidatzeaz".

Kalamuaren arriskuengatik arduratu

Kalamua hartzearen ondorioak eza-gutarazteaz kezka dute, "ez baita egia kaltegarria ez denik". Osasun arriskuak eta arrisku juridikoak aztertzen dituzte eta jakintza zabaltzen saiatzen dira. Horretaz gainera, landareen ibilbide osoa zaintzen dute, ekoizpenetik kontsumo-raino, hartzen dutenaren kalitatea lan-du eta bereizketak eginez.

Euren kezka nagusietakoa da adin-gabeak eta kalamua ez direla ondo konpontzen. "Ez lukete kalamua hartu behar", diosku Goiok, "eskola-porrotan eragin eta burujabetasunaren garapena bloka dezakeelako". Irratsaioetako gai nagusi bat da hori. Besteak beste, programa Zumarragako adinez beherakoen kartzelara eramaten saiatzen ari dira.

ACEE-AU bezala, Eusfac elkarte-federazioaren barruan eta antzeko eraketa eta arauketarekin jarduten diren elkarte gehienak izan dira auziperatuak azken bolada honetan. Epai batzuk absoluziozkoak eta beste batzuk konde-nazkoak izan dira, Eusfacen esanetan egitatezko elementuak berdinak edo oso antzekoak izanik ere. Batetik, EAE-ko Auzitegi Gorenak kalamua elkartetik kanpora hedatzeko arrisku abstraktua aitzakiatzat jarriz, lehen zigor-epaia eman zuen iazko irailean Bizkaiko bi kalamu elkarteren aurka. Bestetik, Estatuko Fiskal Nagusiak kalamu elkar-teak XXI. mendeko plaga berritatz jo zituen zirkular sorta batean; harrezkerotik, Gipuzkoako fiskaltzak ahalik eta elkarte gehien auziperatu ditu, "euren karreraren aurrera egiteko-edo", Goioren ustez.

Akusazio idatzia gogortu dituzte, gainera. Berriki, erakunde krimina-la izatea egotzi diote epailetaren zain dagoen Donostiako beste elkarte bati. 400.000 euroko zigorra eskatu diote. "Bizitza hondatu ahal dizute, pentsa adibidez zazpi urteko alabaren zaintza ken diezazuketela".

Egiten duten lana onuragarria dela erakutsi nahi dute. "Elkartean ez dugu sekula liskarrik izan, bazkideen onarpe-na arretaz egiten dugu, itxarote-zerrenda luzea dugula esanez". ACEE-AUko bazkide izateko eskualdekua izan behar da, eta %90 Urretxukoak dira. Bertako ka-lamu kontsumitzaileen %10 omen dira. Barne-araudiaren arabera, gehienez 500 bazkide izan daitezke. Goioren esanetan, seriotasun handiz hartzen dute arautzea. Adibidez, erabat bereizten dituzte kala-

mua eta beste drogak, merkatu beltzean ez bezala. Kaleko saltzaileek haxixa, an-fetaminak edo LSDa izaten dituzte poltsi-koetan. Elkartean berriz, kalamua baino ezin daiteke hartu.

"Lehen baino okerrago gaude"

Batek loradenda batean egiten zuen lana, beste bik inguruko enpresa ba-tean. Lanpostu haiek utzita kalamuaren industrian lan egiten dutenetik hamaika sari jaso dituzte. "Historia egiten ari gara", dio batek txantxa doinuaz, "agian ARGIAren argazki hauek etorkizunean lan aitzindaritzat hartuko dira". Kalamua ekoiztu eta kontsumitzeko esku-bidea iristear dagoela uste dute, "baina hamaika urte igaro dira lau urteko bo-rroka besterik ez zela geratzen pentsa-tzen hasi ginenetik, eta hasieran baino okerrago gaude orain", dio zuzendaritza batzordeko beste kide batek.

Etorkizunean ez dute epaitegiekin zerikusi gehiagorik izan nahi. Jarduera-baimena dute, zergak ordaintzen dituzte eta hainbat azterketa bideratu dituzte poliziarekin protokolo bat adosteko. Kalamuaren kontsumoa elkartetik kanpo-ra hedatzeko aukera eragotzi dute, eta landareen usain guztia pabiloi barruan geratzen da. Hori da Ertzaintzak eskatu diena. Kanpotik usaintzen ez bada eta alarma soziala sortzen ez badute, ba-kean utziko omen dituzte.

Itxaropen horrekin jarraitzen dute euren industria-jardueran. OHO izena duen haxix berezia ekoizten ikasi dute. Trebezia handia eskatzen du, kalamua gasarekin nahastu behar delako aurre-na, eta arriskutsua delako. Erretxinak hartzen duen azken forma errearen ko-loreko haxix berezia da. Gramo batek 90 euro balio dezake Holandan, eta hemen hamar euroren truke destilatzen dute.

Lapurtuko baliete, ezin salatu

Elkartearen baratzeta non kokatuta da-goen bazkideek ere ez dakite. Lapurren beldur dira, gehienbat. Gauero norbait geratzen da pabiloian, landaketa-ere-mua zaintzen. "Lapurretan etortzen badira, egin dezakegun gauza bakarra inolako gogorkeriarik erabili gabe lapu-rreta saihesten saiatzea da", dio Goiok, "lapurtuko baligute ezin izango genuke salatu".

Eta agur esan aurretik, azken mezua: kalamua, arazoa baino, aukera da. "De-sinformazioak bihurtzen du arazo". ■

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



Gozatu euskaraz liburutegietan!

- **ALDABE**
Txotxongiloak egiten. Lantegia
Urriak 29, 11:30; 4-8 urte
Bazk: 1,50€/ Ez bazk: 2,50€
Senegal-Gambia ndanka ndanka. Bizibidaia
Urriak 25, 19:00
- **ARIZNABARRA**
Planetetara bidaia. Ciencia Divertida (lantegia)
Urriak 26, 18:00; 7-10 urte
Bazk: 1,00€/ Ez bazk: 1,70€
- **HEGOALDE**
Ganbaran. Ameztu Produktzioak (txotxongiloak)
Urriak 21, 18:00; 5-10 urte; 1,00€
- **PILAR**
Galaxietako liburutegia. Ciencia Divertida (lantegia)
Urriak 19, 18:00; 5-7 urte
Bazk: 1,00€/ Ez bazk: 1,70€
- **GOIURI**
Feminist agenda euskal literaturan
Gema Zabaleta
Urriak 19, 18:00; 1. asteazkenetan
19:00; helduak

Oihaneder euskararen etxea

- Omar filmea
Urriak 4, 19:00-20:30
Filmazpit: JB eta azpitituluak euskaraz
- Zutik ozta-ozta nator
Liburu-aurkezpene
Benan Oregi Inurrieta
Urriak 5, 19:00-20:30
- Auzokoak
Auzoko programaren
Aurkezpene. Dokumentala
Urriak 13, 19:00-20:30
- Laranja bat zaborretan
Ikuskizuna
Patxi Zubizarreta, Mintxo Cemillan
Pello Ramirez, Felipe Barandiaran
Urriak 15, 19:00-21:00
- SolasAlean
Zuriñe Hidalgo
Urriak, 19:00-21:00
- Mairuelegorreta: iluntasunetik argitasunera
Dokumentala
Urriak 26, 19:00-20:30
- Eskilarapeko soinuak
Jabier Muguruza
Formatu txikiko kontzertua
Urriak 27, osteguna, 19:30-21:00

Principal antzokia

- Hautsa
Parasite Kolektiboa
Urriak 13, 20:30, 15€
- Lunaticus Circus
Teatro Paraíso
Urriak 23, 18:00. 7 urtetik gorakoentzat, 6€

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Konfiantzaren pedagogia

IKASLEEK ERAIKITAKO IKASKUNTZA METODOA

Ikastetxe batzuk ari dira ohiko irakaskuntza metodoetatik harago, bestelako ereduak dastatzen. “Hartu eta ikasi” leloa atzean utzi eta “eraiki eta ezagutu” binomioa oinarri duen pedagogiari heldu diote. Horien artean da aurtengo Kilometroak antolatzekeo ardura duen Bergarako Aranzadi ikastola. Konfiantzaren pedagogia lantzen dute.



Iker Oñate Aiestui

@Iker_Onate

ARGAZKIAK: ARANZADI IKASTOLA

Arrasateko Arizmendi ikastolan jaio zen konfiantzaren pedagogia, 2008. urtean. Ordutik, hainbat ikastolen interesa bereganatu du eta bere hedapena ikusirik, ereduaren orientazioan laguntzeko ardura hartu du Ikastolen Elkartek. Horrek ez du esan nahi ikastola guztiek konfiantzaren pedagogiarekin bat egin behar izango dutenik; ikastetxe bakoitzaren esku dago erabakia.

Bergarako Aranzadi 2011-2012 ikasturtean heldu zion heziketa metodo honi, eta egokitze prozesuan dago ordutik. Ikasleen errealitatearen arabera eraikitako ereduak izaki, etengabeko behaketa lanean dihardute irakasleek. “Denborarekin garatuz doan metodoa da, ikasleen ezaugarrietara egokitu behar baita heziketa; esperimentazioa eskatzen du horrek”, dio ikastolako zuzendari Ane Barrusok.

Orain arte Haur Hezkuntzan landu dute. Ikasturte honetan, beste urrats bat eman eta konfiantzaren pedagogia Lehen Hezkuntzako hasierako zikloan aplikatzea erabaki dute. Maila horietako ikasleek Haur Hezkuntzan dagoeneko dastatu zuten ereduak; beraz, aurtengoa jarraipena litzateke. Baina metodoa adinera –eta ikasturte bakoitzak dituen exigentzia orokorretara– egokitu beharra dagoenez, pedagogia Lehen Hezkuntzako ikasleen errealitateara egokitzeko lanean ari dira orain Aranzadin. “Esperimentazio aldia izango da aurtengoa”, argitu du Barrusok. Uztak fruitu oparoak ematekotan, metodoa ikastetxe guztira hedatzea litzateke asmoa.

Haurra hobeto ulertzeko gakoak

Metodoa barneratzeko, aurrez ikastetxeko langileek formazio saioak egin dituzte. Haur psikiatrian eta psikologian aditu den Rafael Cristobalek gidatu zituen saioak eta, besteak beste, berak



idatziriko *El niño en la mirada del conocimiento* liburua landu zuten. 0 eta 6 urte bitarteko haurrak hobeto ulertzeko gakoak jorratzea izan da xedea. Teoriaren ostean, praktika etorri zen. Prozesu hori bi urtez ikuskatu zuen Cristobalek, irakasleek metodoa menperatzen zutela baieztatu arte. “Ostegunero etortzen zen irakasleen jarduna behatu eta ikusitakoa hobetzera bidean, zuzendaritza taldeari proposamenak egitera”, azaldu du Barrusok.

Bestalde, espazio fisikoaren berrantolaketa ere ekarri du konfiantzaren pedagogiak. Alegia, horma gutxiagoren beharra du heziketa eredu berri-tzaileak; jada ez dira funtsezko hainbat ikasgelatan, isolaturik, banaturiko ikasle taldeak. Adin ezberdineko haurren arteko hartu-emanak eskatzen du metodoak eta zortzi adimen lantzerantz bideraturiko sei heziketa esparru eskaintzen dira horretarako; giza hizkuntza, logika-matematikoa, nor-



beraren buruaren ezagutza eta kudeaketa, espazio-ikustea, natura eta musika adimenak jorratzeko materiala dute eskuragarri txoko horietan. Haurrek askatasuna dute egun bakoitzean nahi duten eremura jotzeko, baita saioaren erdian heziketa esparruz lekualdatzeko ere. Finean, ikasle bakoitzaren

nahiak bideratuko du bere ikaskuntza; hori bai, ikasleak adimen ezberdinak dastatzen dituela ziurtatzen du irakasleak. Akuilu gisa, esaterako, dinosauroen panpinen ondoan dinosauroei buruzko liburu bat jarriko du hezitzailerak, umeak gaian interesa badu irakurtzera animatzeko.

» Ikasleak motibatuago dihardute eta horrek autonomia handiagoz aritzeko nahia dakarkie, irakaslearekiko izan dezaketen menpekotasuna murriztuz

» Aurten Bergaran egingo den Kilometroak jaian izango da ereduaren aztarnarik. Besteak beste, Blai-blai prozesua

VRPA **autobusak**

**22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak**

**Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko**



Ubilluts auzoa · 55. poligonoa · 9. eraikina · 4
Andoain (Gipuzkoa) · Tel.: 943 305 050
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com



MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa, 13 - 0V lokala · Orereta - Erreterria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 008 579 / 656 704 021 · erbibus.com · info@erbibus.com

ARRANO *taberna*

ARRANO ZABALIK!!!
GAZTELU ETXERA!!!

Kruz Gallastegi kalea 5
20570 Bergara



Igaro usaindegia
Barrenkale, 35
20570 BERGARA
Tel.: 943761727

AITONAK TABERNA
Jubilatuen Etxea

Eguneko menua
Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak

Tel.: 628443486
Boni Laskurain 9 - 20570 Bergara



Intxausti
harategia · urdaitegia

Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 810 489 / 687 527 664



Adin ezberdineko haurren arteko hartu-emana eskatzen du metodoak eta zortzi adimen lantzerak bideraturiko sei heziketa esparru eskaintzen dira horretarako; giza hizkuntza, logika-matematikoa, norberaren buruaren ezagutza eta kudeaketa, espazio-ikustea, natura eta musika adimenak jorratzeko materiala dute eskuragarri txoko horietan.

Gurasoen esku-hartzea

Gurasoak zutabe garrantzitsua dira haurren heziketa prozesuan eta horretaz jakitun, parte-hartzaile aktibo dira konfiantzaren pedagogian. Hilean behin eurei bideraturiko mintegia antolatzen du ikastolak, Rafael Cristobalen laguntzaz. Heziketa metodoa bera gertutik ezagutzeko aukera emateaz gain, haurren garapenari loturiko edukiak lantzen dituzte formazio ordu horietan. Baina gurasoen esku-hartzea hortik harago doa: seme-alaben eskola orduetan presente egon daitezke eta lantzean behin, ikasleei mintegi bat eskaintzeko ardura dute.

Oro har, ikasleari segurtasuna transmitituko dion konfiantzazko giroa sortzea du helburu metodoak, ikaslearen heziketarako onuragarria izango delakoan. Aranzadi ikastolako psikologo Miriam Mujikaren esanetan, "giro horretan gustura, pozik eta esploratzeko gogoz daude ikasleak". Hain zuzen, konfiantzaren pedagogiak sortzen dituen baldintza horiek baliatzen dituzte irakasleek, irakaskuntza giro berri horretara egokituz. Hau da, ikasleak motibatuago dihardute eta horrek autonomia handiagoz aritzeko nahia dakarkie, irakaslearekiko izan dezaketen menpekotasuna murriztuz.

Jatetxea - Restaurante
NICOLASA



*Txangurroa labean
eta arraia plantzan*
Eguneko menua eta bereziak

☎ 943 515 469
Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)

Laura Breña
Alga lurrin-denda



Ibargarai, 10
20570 Bergara
Tel. (34) 943 760085
algalaura@hotmail.com



Ikasleari segurtasuna transmitituko dion konfiantzazko giroa sortzea du helburu metodoak.

Barrusok. Gainera, orain arte eginiko azterketek adierazi dutenez, oinarritzko edukietatik aparte, gizarteko eskakizunei aurre egiteko baliagarri izan daitezkeen ezagutzak eskuratzen dituzte ikasleek.

Gizarteratzeko lanean

Konfiantzaren pedagogia ez da ikastetxeen hormetara mugatzen, horietatik kanpo ere badu islarik. Pixkanaka-pixkanaka gizarteratzen ari da eta Aranzadi ikastola hasia da bide horretan urratsak ematen: aurten Bergaran egingo den Gipuzkoako ikastolen Kilometroak

Oraindik emaitzak baloratzeko goizegi den arren, ikastolako langileak, gurasoak eta ikasleak kontent dira metodoarekin. "Esperientzia aberasgarria ari da izaten. Irakasleak pozik daude, eta bide beretik jarraitzearen aldekoak dira. Gurasoentzat ere onuragarria da, euren haurren heziketan sakonago esku har baitezakete", azpimarratu du Ane

jaian izango da ereduaren aztarnarik. Besteak beste, haurrentzat muntaturiko guneko eskaintza (jolasak, ekintzak, materiala...) zehazteko Blai-blai prozesua jarri zuen martxan ikastolak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen iradokizunak jasotzeko. Hala, haurren ekarpenen arabera diseinaturiko esparrua izango da. ■



OBRAK eta PROIEKTUAK

ELGOIBAR BERGARA

943744223 943765342

goki@gokierreformak.com





Ibargarai, 8 - Tel.: 943 08 28 68 - 20570 Bergara



Zure konfiantzako garbiketa enpresa!





943 714 845 www.hemen-garbiketak.com



**IBAROLA BEHEKOA
BASERRIA**

LAURGAIN AUZOA · 20809 AIA
PAGOETAKO NATURA PARKEA
☎ 943 83 45 49 / 659 21 53 92
ibarrolabekoa@hotmail.com
www.ibarrolabekoa.com



OGIBERRI ELKOARTI
OKINDEGIA - GOZOTEGIA - KAFETEGIA

Tel.: 943533378

OGI BERRI
ARTISAU OGIA

**Ibargarai kalea 6 behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)**

 **OGIBERRIELKOARTI**



Argia Eguna Ondarroan

PUNTADAZ PUNTADA, TXIKITIK ERAGITEN JARRAITZEKO

Unai Brea / Axier Lopez

@unaibrea / @axierL

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Usurbil eta Oñatiren ostean, Ondarroaren txanda heldu da. 2014an berpiztu genuen Argia Eguna, eta hirugarren edizioa Lea-Artibaira eramango dugu, *Puntadaz Puntada Txikitik Eragiten* goiburuarekin. Urriaren 1a (larunbata) hautatu dugu horretarako. Egun osoan, hainbat ekimenez beteko dugu Ondarroako Itsasaurre plaza. Denerako tarte izango da: jolasa, hausnarketa, musika, berriketa... Aurreko urteetan bezala, eskualdeko eragileekin elkarlanean osatu dugu egitaraua. Eskerrik beroenak haiei.



- BERRIATUA
- ETXEBARRIA
- GIZABURUAGA
- ISPASTER
- LEKEITIO
- MARKINA-XEMEIN
- MENDEXA
- ONDARROA
- ZIORTZA-BOLIBAR

Iazko Argia Egunerako plazaratu genuen *Txikitik Eragiten* leloa, eta aurten ere eutsi egin diogu. Euskal hedabideok txikitasunera derrigortuta gaudela dirudi, baina txikitasunak ez du oztopoa izan behar; aitzitik, bertutea izan daiteke. Txiki askok gauza handiak lor ditzakete-eta, elkarlanean arituz eta zorrotz jokatzuz gero. Zorrotz, arrantzaileen herrietan sareak josteko erabiltzen diren orratzak bezala. Puntada non eta noiz eman asmatzen duenak bidean oso aurrera egin dezake, txikia izanagatik.

Horregatik, *Puntadaz Puntada* erantsi diogu aurten Argia Eguneke leloari. Iaz ARGIAk egiten dituen produktuei eman genien protagonismoa, batez ere astekarian gauzatzen ari ginen birmoldaketari. Aurten, Ondarroan, proiektu osoaz jardun nahi dugu, eta batez ere proiektu horren subjektuaz: ARGIAk eragiten jarraitzea ahalbidetzen duen komunitatea. Irakurle fidelak, noizbehinkako jarraitzaileak, iragarleak, langileak.... Komunitate horren barruko harreman ereduaz hausnarketa egitera gonbidatu nahi ditugu ARGIA zaleak. Eta Lea-Artibaiko herritar guztiei, berriz, egitasmo

hau hurbilagotik ezagutzeko aukera eskaini, giro alai, euskaldun eta berdinzailean, besteenganako eta inguruarekiko errespetuz.

Bertoko taldeekin elkarlanean ondutako egitaraua

Txikitasuna ardatz izanagatik, jende askotxok denbora luzez lana gogotik egitea eskatzen du honelako jai bat antolatzeak. Aurreko edizioetan irekitako bideari jarraituz, Argia Eguna egingo den eskualdeko eragileekin batera osa-

tu nahi izan dugu jaiaren egitaraua, ahalik eta neurri handienean. Eman-hartu horren fruitu da, urrunago joan gabe -Saturraraneraino besterik ez-, eguna hasteko egingo dugun Oroimenaren Txangoa, Ondarroako Historia Zaleak taldearen eskutik. Besteak beste, 1936ko gerrako pasarte esanguratsu baten berri jasoko dugu iraganerako bidaia horretan: Jose Antonio Agirreren gobernua Ondarroako txalupetan bost kutxa urre Baionara eramanez zituena. Gerrarako armak erosteko baliatu zuten urre hura. Pasarte horren berri xeheagoa eman genizuen joan den aste-ko ARGIAN.

Txangozaleak bidean diren bitartean, 11:00etan, jaiari hasiera "ofiziala" emango diogu, ongi-etorri ekitaldi xume batez. Ostean herri eragileen azoka irekiko da -hantxe izango da, halaber, Jakoba Errekondo, *Bizi Baratztea* eta *Altza Porru* liburuekin, gura duen edonori baratzeari eta landareei zalantzak argitzen-, eta jolas hezitzaileak hasiko dira.

Umeentzat ez ezik helduentzat ere jostagarri eta hezigarri izango dira jolasak. Aurreko edizioetako ohitura onak

» ARGIAren komunikazio proiektuari eusten dion komunitatearen barruko harremanez hitz egin nahi dugu Ondarroan, besteak beste



CIKAUTXO AUTOMOCION
MAGDALENA AUZOA 2- B
48710 Berriatua
946133000
cikautxo@cikautxo.com





Oñatin ospatu genuen 2015eko Argia Eguna.



2014an Usurbilen ekin genion Argia Eguna berriz ospatzeari.

ez ditugu herdoiltzen utzi nahi, eta horregatik han izango da berriz ere Pello Zubiria etxe honetako lankidea haziak buztinezko boletan bildu eta naturara botatzeko Nendo Dango teknika irakas-ten. Eta bertokoen ekarpena ezin falta, jakina: Txirimorraski taldearen eskutik iritsiko dira hainbat jolas eta eskulan, berriki ARGIAko azalean aurkeztu geni-zuen Izaro Arbek zesta-puntaren sekre-tuak argituko dizkigu, dantza eskolak emango ditu Ondarroako Evak...

Hausnartu, dantzatu, kantatu, gozatu
Eguerdiearekin batera, ARGIA zaleak bil-du nahi ditugu mahairen bueltan, ko-munikazio proiektu honen izaeraz eta berau osatzen dugun guztion –bai, zu ere bai– harremanaz gogoeta egiteko. Hausnarketarako tartetxo hori goizean goizetik kaleko giroa piztuko dutenen algararekin bateratuko dugu: jai egun batean ezin falta musika, kantua eta erritmoa. Eskualdeko hainbat talde ar-duratu dira txinparta sortzeaz, norberaren esku erronkari eustea.

ARGIA EGUNA 2016 EGITARAUA

URRIAREN 1A, ONDARROAKO ITSASAURRE PLAZA

- | | |
|--|---|
| 10:00 OROIMENAREN TXANGOA.
Ondarroako Historia Zaleak
elkartearekin. | 12:00 ARGIAZALEEN TOPAKETA |
| 11:00 ONGIETORRI EKITALDIA | 14:30 HERRI BAZKARIA + BERTSO
SAIOA. Ikusi hurrengo orrialdeko
koadroa. |
| 11:15 JOLAS HEZITZAILEAK. Eskulanak,
jolas erraldoia, zesta-punta,
Nendo Dango, hankapaluak,
dantza tailerra... | 17:00 KALE ANTZERKIA. Abarka taldeak
Argia Egunerako sortutako
Argi-uneak sortutako antzezlan
taularatuko du. |
| 11:15 HERRI ERAGILEEN AZOKA
IREKIERA. <i>Bizi Baratzea</i> eta <i>Altza</i>
<i>Porru</i> liburuen saltokia eta Jakoba
Errekondoren kontsultategia
izango dira azokan. | 18:00 EUSKAL HERRIKO III. NORTASUN
AGIRI ARROTZ JAURTIKETA |
| | 19:30 KONTZERTUAK
Jon Basaguren
Occhi di Farfalla |

Egun osoan *Trantsizioak* erakusketa ikusgai izango da jai-gunean. Halaber, kale anima-zioak alaituko du goizeko giroa: trikitia, txistulariak, kantuak, erraldoiak, batukada...



ZIORTZA-BOLIBARKO UDALA

Domingo Ugartetxea, 3
48278 (Ziertza-Bolibar)
☎ 946 165 727 · Faxe: 946 164 016
udala@ziortza-bolibar.com
www.ziortza-bolibar.com

JAN ETA EDATEN DUGUNA ERE BAGARA

Jakoba Errekondok dio hauteskondeetan boza nori eman jakiteko biderik onena dela politikariei galde-tzea non erosten duten janaria. ARGIA, oraingoz, ez da hauteskundeetara aurkeztuko, baina galde-
ra horri heldu nahi diogu. ARGIAren komunitatea osatzen duten milaka lagunek proiektua babesten dute kazetari-tza egiteko erabiltzen ditugun baloreen-gatik, eta gu ez gara nor horiei muzin egiteko diru apur bat gehiago irabazte aldera. Ezta jai giroan ere. Beraz, Argia egunean zer jan eta edan aukeratzeko orduan oso presente izan ditugu elikadur-
a burujabetzaren alde ari diren bertoko ekizleak.

200 lagunentzat antolatu dugun herri bazkarirako Lea-Artibaiko ekizle txikiengana jo dugu lehenik. Entsalada osatzeko urazak, tipulak, tomateak, sagarrak eta abarrak eskualdeko nekazari ekologiko-
koenak izango dira. Markina-Xemeingo, Aulestiko eta Mutrikuko bost baserritar dira eta elkarrekin Markinako eskola pu-
blikoko hirurehundik gora ikasleak elikatzen dituzte. Argia Egunean ere bide bera egingo dute barazkiek: baratzetik mahaira, bitartekaririk gabe.

Jaki nagusia marmitakoa izango da, Ondarroan zer bestela! Uxola Kultur Elkarteko lagunak Ondarroako herri bazkarieta-
ko erregin-errege antimonarkikoak dira. "Ados, baina gitxienez 200 lagunentzat, e!". Bazkaltiarren muga goitik baino behe-
tik jartzen dizunak konfiantza ematen du eta marmitakoa herriko portutik ekarrita-
ko atunarekin eginda, zer esanik ez.

Inguruko okinen ogiekin garbituko di-
tugu platerak eta Arabar Errioxako Can-
dido Besa upategiaren ardo ekologikoe-
k eta Markina-Xemeingo Axpeko lagun-
en sagardoak lagunduko dute zintzurra eta
mingaina alaitzen.



Postrerako, aldizkarian publi-
tatea jartzen duen Nafarroa-
ko Lacturaleko jogurtak
izango ditugu, Berango-
ko Mari Tere Gonzalez
harpidedunak ARGIA
Egunerako espresuki
egindako euskal paste-
lek lagunduta.

Bazkarian bezala,
txosnan ere zenbait karte-
lek "Ura ez da salgai" esango dute. Ura
eskubidea denez, ez dago zertan horren
truke ordaindu edo kobratu, ezta plas-
tikozko botilak xahutu ere. Edalontzia
gustura beteko dizuegu iturrian.

Ura pribatizatzen eta gure zainak
azukrez betetzen txapelduna dugu Co-
ca-Cola. Bera eta Pepsiren artean edarien
arloko monopoliorik handiena osatzen
dute. Ez da erraza morrontza horretatik
askatzea, baina aurtan norabide horretan
beste pauso bat eman dugu. ARGIAko
egoitzatik oso kilometro gutxira ekoiz-
ten den Korrikolari freskagarria eskainiko
dugu. Iván García Caballero lasartearrak
sortutako kolak ez du ez azukrerik ez ka-
loriarik.

Munduko alkaterik onenak eraitsi au-
rretik, Bilboko Kukutza gaztetxean hasi
ziren egiten Aingeru, Alba, Urtzi eta abar
txosnan eskainiko dugun garagardoa.
Egun Mungiako pabiloi batean urtero
60.000 litro ekoizten dituzte Boga koope-
ratibako lagunak.

Ezin aipatu gabe utzi urtero txosna-
ko parrilak pizteko arrazoiak, Villabona-
ko Musturinea harategiko Argiazaleen
solomo, txorizo, gazta eta abarrak. Eta
amaitzeko, aitorten bat: aldizkari-
editorialen antzera, tortilla pintxoek egile-
tza komuna dute. "Ez ahaztu larunbatean
tortilla bana ekartzea", dio urtero Argia
Egunaren bezperan 25 lankideok jaso-
zen dugun e-mailak. Txosnan salgai dau-
den pintxoak ere auzolanean egiten ditu-
gulako.

» Bazkarirako txartela hartzeko deitu ARGIAra (943 371 545) edo idatzi denda@argia.eus
helbidera. Menua: bertoko produktuekin egindako entsalada, marmitakoa, jogurtak
eta euskal pastela; ura, sagardoa, ardoa eta kafea. 14:30etik aurrera. Prezioa: 15 euro
(langabetuek, langile prekarioek eta ikasleek 12). Bazkalostean Bertxio bertso saioa izango
da, Iratxe Ibarra, Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitiarekin.

SALMENTA eta KONPONKETA
MULTIMARKA

**KG ONDARROA
MOTORRAK**

656 78 94 68
94 683 23 93

kgmotorrak@gmail.com

Antiguako Ama 11, behea
48700 ONDARROA
(Bizkaia)



**Lea-Artibaiko
AXA agentziak**

Ondarroa ☎ 946 036 484

Lekeitio ☎ 946 243 396

Markina ☎ 946 168 912

aseguruak / berrasmatzen



**ARROZTEGIA
DAK AITZ**

94 683 21 68
605 715 404
657 799 809

ateak,
tarimak,
leihoak,
zokaloak,
persianak,
sukalde
eta altzari
montaia

era guztietako egur lanak

Egidazu kaia, 7 • ONDARROA

Lagunkor

Aholkularitza / Inmobiliaria

info+ 94 683 18 02

info@lagunkor.net

Artabide 12 / Ondarroa 48700 / Bizkaia



Ondarroakoa da, hain zuzen ere, 2014an Usurbilgo Argia Egunean parte hartu zuen Andrabanda batukada feminista.

Dibertitzeaz ere atsedean hartu behar izaten da, eta horretarako parada eskainiko digu 200 lagunentzako herri bazkariak –ikus aurreko orrialdea–, Itsasaurre plazan kokatuko dugun karparen barruan. Hortxe izango dira, era berean, digestioa gozatzeko Lea-Artibaiko bertso eskolek prestatuko diguten Bertxio,

twitter bidezko bertso saioa, eta Abarka taldeak –eskualdekoa hori ere– Argia Egunerako beren-beregi sortutako *Argi-uneak* antzezlanak.

Indarberrituta, nortasun agiri arrotzak ahalik eta urrunen jaurtitzen saiatuko gara hirugarrenez, ahal baldin bada behintzat Usurbil eta Oñatiko arrakasta

berdinarekin. Eta tartetxo bat hartuko dugu musika taldeek beren tresneria prestatzen duten bitartean. Akaso, lehenago egin ez duenak, egun osoan jai-gunean ikusgai izango den *Trantsizioak* argazki erakusketaz gozatuz.

Bide-lagunak gogoan

19:30ean hasiko dira kontzertuak, Jon Basaguren eta Occhi di Farfallaren eskutik –nork daki azken uneko ustekabekoren bat ez ote zaien batuko–, eta gauerdi aldean iritsiko da “datorren urtera arte” esateko momentua. Etorriko dira bilera serioak eta balorazio sakonak; urriaren 1ean, nahikoa bedi egindako lanaz harro sentitzea eta bidean lagun izandakoari eskerrak ematea. Ezin ahaztu, esaterako, Ondarroako Udalak eta Antza inprimategiak emandako laguntza, ezta ere Etxebarriako Eika enpresaren babesa.

Baina bereziki, nola ez, egitaraua osatzen eta jaia aurrera ateratzeko nahi-taezkoak diren lan ikusezin mordoak egingo duten Lea-Artibaiko hamaika lagunetzat gogoratzeko unea izango da. Doakie hemendik esker oneko besarkada. ■



*Enpresa eta
autonomoentzako
aholkularitza*

Iparragirre kalea 9 baxua ONDARROA • ☎ 946 833 208
Tolosa Etorbidea 5, 4 Solairua 2. Bulegoa 20.018 Donostia • ☎ 943 429 609
fideslan@fideslan.com • www.fideslan.com



**Berriatua
Elizateko
Udala**



T. 946 137 030
F. 946137027

Herriko Plaza, 1
48710 Berriatua-Bizkaia
www.berriatua.org

LEHEN GAUEKO BORTXAKETA ARAUTUA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Muskiz (Bizkaia). Lope Garcia de Salazar (1399-1476) setiatu zuen Muñatones dorretxean haren seme Joane. Giltzapetuta emango zituen bizitzaren azken urteak, Muskizen lehenik eta Portugaletako Salazar dorrean gero, oinaztarra izan arren ganboatarren alde egin zuelako.

Azken urte horietan *Istoria de las bienandanzas e fortunas* lan mardula idatzi zuen, 35 liburukiz osatua. Mundua sortu zenetik XV. mende erdialdera arteko historia jaso zuen jaun banderizoak eta horri esker Bizkaiko lehen historialaritzat jotzen da.

Bandoen arteko gatazkak ulertzeko balio handiko iturri horretan, besteak beste, *Jus Primae Noctis* edo lehen gaueko eskubidearen alde idatzi zuen Salazarrek. Horren arabera, jaun feudalek ezkontzear zen haien mendeko edozein dontzeilarekin harreman sexualak izateko eskubidea zuten, ustez.

Eskubidea hizpide duten dokumentu legal gutxi gorde direnez, zenbait historialarik zalantzan jartzen dute jaunek eztei-gauean basailuak literalki bortxatzeko eskubidea ote zuten. Historiografia tradizionalaren arabera, eztei-gaueko sexu erasoak legezkoak ziren jaunentzat, baina hainbatek dio *Jus Primae Noctis* erritu sinbolikoa besterik ez zela.

Inork ez du zalantzan jartzen, ordea, eztei-gauean nahiz beste edozein une-



XV. mendeko jaun feudal bat 'Jus Primae Noctis' ustezko eskubidea baliatzeaz erakusten du irudi honek.

tan, legeak zehatz-mehatz jaso ala ez, behe estamentuetako emakumeak bortxatzea ohitura oso zabaldua zela Erdi Aroan.

Eta horren adibide da, hain zuzen, beste Lope Garcia de Salazar bat, izen bereko historialaren birraitona, Bizkaiko Mailegari Nagusia, 1344an Algeciras konkistan hila. Badakigu bitan ezkondu zela eta emazteekin gutxienez lau seme izan zituela. Baina, ezkontzaz kanpo, goiz hasi zen jaun izateak ze-

karzkion pribilegioak –legezkoak ala ohiturazkoak– erabiltzen eta sasiko ondorengoak izaten. Lehenengoa 15 urte zituela izan omen zuen, Nogaroko (Araba) neska batekin. Guztira, 120 sasiko seme-alaba izan zituen

Haren birbiloba, munduaren historia jaso zuen hura, ez zen birraitonaren kopuruetara iritsi, baina 1476an Portugaletako dorrean pozoituta hil zutenean, Mencia de Avellaneda sasiko alaba alboan zeukan. ■



PHEASTON

Dinosaurioek ez zuten orro egiten

Texaseko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek gaur egungo hegaztien bokalizazioa aztertu du, haien arbaso dinosaurioek egiten zituzten soinuak ondorioztatu nahian. "Emaitzek erakusten dute ahoa itxita bokalizatzeak gutxienez hamasei arkeosauotaraino eboluzionatu duela (taldeak hegaztiak, dinosaurioak eta krokodiloak hartzen ditu barne). Egun tamaina handiko espezieek,

zizneen tamainakoak gutxienez, horrela bokalizatzen dute", dio Chad Eliason ikerlariak. Hala, ostruken estaldiko urrumen antzeko soinuak egiten zituztela ondorioztatu dute. Dagoeneko badakigu dinosauro gehienek kolore biziko lumak zituztela. Eta orain orroen orde zurruma egiten zutela diote. Filmetako dinosauro espezie beldurgarriak desagertzeko bidean daude. ■

Itxaropena esklabotza da



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Hagin bat sortzeko gai bazara, milaka urterako mundu bat egiteko ahalmena duzu. Milaka urte bizitzeko pazientzia hartzen du, bai, haginak (*Taxus baccata*). Milaka urte horietan mundu asko biziko dira haginaren inguruan: txori, intsektu, landare, goroldio, perretxiko... Etenik gabeko aldaketa bizia. Zure esku dago mundu horiek sortzeko aukera, eta, agian egunen batean, zure munduan egin duzun gauzarik ederrera dela jabetuko zara. Hagin bat sortu.

Hagin bat zure besoetako egin nahi baduzu, bi bide urra ditzakezu: hazia eta aldaxka. Biak egokiak dira, baina berak milaka urte bizitzeko hartzen duen adinako pazientzia izan beharko duzu zeuk ere. Alaba bat ekarriko bazenu bezala da, urteetako lana, baina emaitza ikaragarria. Oraintxe duzu lan horretara emateko garai ona. Haziak laster erakutsiko ditu hagin emeak eta aldaxkak moztu eta landatzeko sasoia da.

Haginak dioikoak dira: zuhaitz batzuk arrak eta beste batzuk emeak. Biek loreak ematen dituzte, baina fruitua emeak bakarrik. Hazia ereinez gero, ez dakizu sortuko den hagina arra edo emea izango den. Aldaxkatik bai: arraren aldaxkatik arra sortuko da, eta emearenetik emea, beti. Egokienak inguruan dituzuen haginetaoak dira, bertakoak. Ez alferrik ohituta eta egokituta daude.



Hagin emea da fruituak eman ditzakeen bakarra.

FRANK VINCENTZ-CC BY SA

Haziaren bidetik: fruituak arilo gorri lirdingatsu ikusgarria du, barruan, erdi bixtan erdi ezkutuan, hazi beltz boro-bil gogortxo bat duena. Hagin eme bat baino gehiago ezagutzen baduzu, denek fruituak bildu. Eskukada batean baso oso bat hartzeko gai zara. Baso bat zure esku. Haziari arilo gorria kendu eta haziak bereizi. Haziak eta eskukada bat erreka-hondar poto batean sartu, itxi eta astindu eder bat eman. Eskuekin ere egin daiteke, hondarretan marruskatu. Helburua haziaren azalean ebaki tti-

kiak egitea da. Gero irakiteko punttuan dagoen uretan sartu, eta, hoztutakoan, hondar artean geruzatu: ontzi batean hondarra-haziak-hondarra-haziak jarri eta hozkailura. Tarteka ur pittin bat eman, baina ito gabe, haziak ez usteltzeko. Hiru hilabete igarota, negu-neguan erein. Ereiteko tokia ondo aukeratu, ale batzuk udaberrian jaioko badira ere, beste batzuek hurrengo urteari itxarongo baitiote. Zentimetro bete lurpean sartu. Eta itxoin. Alabari itxoin egiozu. Itxaropena esklabotza da. ■



Perretxiko zaindaria



Orain prezio berezia!

15€

Perretxiko bila joatea atsegin duzu?

Jolas honekin perretxiku biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

Eskaerak: ☎ 943 37 15 45 · denda@argia.eus · www.argia.eus/denda 



Gasteizko Sansomendi ikastetxeko ikasleak, EAThink programaren barruan modu ekologikoan onddoak sortzen.

EUSKAL FONDOA

EATHINK PROIEKTUA

Ikasgeletan, jaten dugunaz pentsatzen



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

Europako hamabi herrialdek eta Afrika-ko bik hartzen dute parte EAThink2015 proiektuan. Izenak dioen bezala, jaten dugunaren gaineko hausnarketa egitea du oinarri, horretarako lehen eta bigarren hezkuntzako eskolentzat tresnak eskainiz. Herrialde bakoitzean GKE edo bestelako elkarteren batek kudeatzen du proiektua. Gurean, Euskal Fondoak darama, eta hiru urte iraungo ditu (2015-2017).

Ikasunitate eta tailerrak

Iaz zenbait ikastetxetan elikadura burujabetzari eta kontsumo arduratsuari lotutako hainbat ikasunitate txertatu zituzten. Irakasleak beraiek izan ziren gaia beren ikasgaietara egokitu eta lanketa egin zutenak. "Garrantzitsua da ikasleek jaten dutena nondik datorren eta beren kontsumo hautuek zein eragin eta ondorio dituzten pentsatzea", azaldu digu Amaia Elorza proiektuko ardura-dunak. "Adibidez, txokolateaz aritu izan

gara ikasgeletan: nondik dator kakao hori? Nork ekoizten du eta zein baldintzatan?"

Aurtengo ikasturterako, *Bertokoa jan, mundua buruan* lelopean tailerrak antolatu dituzte. Egungo elikadura ereduak sortzen dituen interdependentzietan, janaria ekoizteko sistema jasangarrietan eta maila txikiko nekazaritzan jarriko dute arreta, berriz ere.

Ikasleak ekintzaile

Kontzientziak pizteaz harago, ikasleak gai honen ekintzaile bihurtzea bilatzen da tailerretan. "Haiek izatea beren ikaskide, auzokide edo herriko lagunei kontsumo arduratsuen inguruan hitz egingo dietenak eta jarrerak aldatzeko ekimenak proposatuko dizkietenak", dio Elorzak.

Proiektuan parte hartzen duten herrialdeetako irakasleen topaketak ere antolatu izan dituzte, batzuk eta besteek gaia ikastetxeetan nola lantzen duten elkarbanatzeko eta ideiak hartzeko. Azaroan, esaterako, Burkina Fason elkartuko dira, hango egitasmo nahiz lanketak ikustera. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiaz,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Irailak 28: Elgoibar

19:00etan, Izarra elkartean.

Urriak 1: Ondarroa

ARGIA Egunean zehar,
Jakoba Errekondoren kontsultatgia.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI LAU SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

Ekologistak Martxan-en liburua eta DVDa

1

Euskal zor ekologikoa: ondorio sozial eta ekologikoak Hegoaldean

Zor ekologikoa herrialde aberastuek herrialde pobretuei, euren ingurumena eta baliabide naturalak arpilatu, kutsatu eta suntsitzeagatik zor dietena dela esan daiteke. Ekologistak Martxan-ek argitaratutako dokumental eta liburu honetan, Euskal zor ekologikoaren inguruko ikerketa sakona egiten da, hegoaldeko herrietan dituen ondorio sozialak eta ekologikoak aztertuz. EHU eta Ekopol-ekin batera egindako lan

honetan, euskal ekonomiaren inpaktu sozio-ekologiko globalean jartzen dute fokoa Leire Urkidi eta Eneko Garmendia editoreek, lan honetarako bildutako atalen bidez. Besteak beste, Palmondoen eragina Indonesian, eztainuaren eraginak Bolivian edo Atunetako euskal arrantza-flota dira aztergai. Argazkian Oiolarako deskonexioaren plataformak Bruselan egindako elkarretaratzea.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EKOLOGISTAK MARTXAN

944 790 119

www.ekologistakmartxan.org

#herrien mundua

#iraunkortasuna

#elikadura-burujabetza

Hilabeteko gainerako sariak

2



Lanki ikertegiak argitaratutako Joseba Azkarraga soziologoaren "Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa" (4 liburu).

3



Txatxilipurdi elkarrekin kaleratutako SUA mahai jolasa, euskal mitologiako pertsonaiekin ikasi eta jostatzeko (4 joko).

4



Mugarik Gabe GKEak argitaratutako "Desazkundera eta ondo bizitzea" eta "Elikadura burujabetza, genero ekitatearekin" liburuxkak (2 sorta).

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIA EGUNA

Berrikuntzak ARGIAren komunitatearentzat



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Etxe honetan ohitura bilakatzen ari da urteko nobedadea ARGIA Egunean aurkeztea. Ia euskal artistak Durangoko Azokarako erreserbatzen diren bezala. Eta gu zain-zain, zer berritasun ezagutuko. ARGIAzaleon Topaketak baliatzen dira horretarako, hori baita komunitatearekin bildu eta iritziak aditzeko espazioa. Bertan aurkeztu zen, iragan urtean ARGIA eraberrituaren 0. alea, esaterako. Zer izango ote da aurtengo sorpresa?

Komunikazio proiektuan sinesten duten eragile eta pertsonak beharrezko ditu ARGIA komunikazio proiektuak; komunikazioaren zein munduaren ikuspegi bertsua dugun talde eta norbanakoek osatzen dugu ARGIA komunitatea. Eta herri komunikabide bezala, elkarrekin ekin eta landu nahi du egitasmo bezala dituen erronkak. Izan ere, komunitatearen babesik gabe ezinezko zatekeen ARGIA egunero egitea. Analisi horren ondotik datoz aurtengo berrikuntza-aren gakoak: zer da egitasmoa babestea? Nola izan parte eta nola eragin ARGIAren

ez ezik, baita jendartean ere? ARGIAnek ekarpena egiteko modu bakarra dago ala aukera gehiago egon daitezke? Hori du erronka komunikazio proiektuak, eta erronka horietaz jarduteko nahia dago ARGIAzaleekin batera. Harpidedunak, irakurleak, iragarleak, ARGIAren balioekin bat egiten duten jendarte eragile eta mugimenduak, zaleak, sare sozialetan hedabidearen edukiak partekatzen dituztenak... horiek denak gonbidatu nahi dira ARGIAzaleen Topaketara.

Harremanek, gertutasunak ematen dio zentzua komunitateari eta ARGIA Eguna horretarako ezin hobea da. Asmo horrekin sortu zen festa eta horretan sakontzea da asmoa. Topaketa urteroko hitzordu bihurtu nahi da komunitateari hitza emateko plazaren figura betez. Aurten, komunitatea eta proiektua izango dira mintzagai, eta bertan ARGIA azken urtean lantzen ari den komunitate erronka garrantzitsu baten berri emango da, 12:00etatik aurrera ARGIA Eguneko karpán. Bertan ikusiko gara, ezta? ■

Sarean arrantzatua

Garoa Kultur Lab

@egaroa

AIZU!!! gero ez esan egutegirik gabe geratu zarela... hegan doaz eta agortu egiten dira #esandut



Xabi Irastorza

@xabirastorza


Bikaina aste honetako @argia-ren azala! Nork hitz egin du defizit mugari aurre egiteaz? Erreforma fiskal sakonaz?...



Imanol Epelde Pagola

@27zapata

Gaur ikusia @karguinano jaunaren hoteleko harreran. Prentsa ona irakurgai @argia



Zinemako txalo eta eztulak



Gari Garaialderen argazki honi esker ziurtatu dezakegu Gorka Bereziartua eta Mikel Garcia jo eta su aritu direla Donostiako Zinemaldian filmak ikusi eta kronikak idazten. Bi hauek eta Gaizka Izagire blogariak egindako kritikak irakurgai dituzue www.argia.eus/zinemaldia-2016 helbidean.



Juan Gorostidi, saiogilea

**“USURPAZIOA IZAN ZEN, USTEZ
BORROKATZEN ZEN SISTEMA
BAT ERABILIZ ETA BORROKA
ARMATUAREKIN TEMATZE ITSU
BATEZ GAUZATUA”**

Altza-Pasaia, 1956. Erreterriako mugimendu autonomoan aritu zen gazte garaian, 1978 urte aldean. Egun, Tai Chi Chuan eskola dauka Donostian. Arte martzialak erakusten ditu, euskaraz. Meditazioa lantzen du. *Zazpigarren heriotza* (Erein) bere bigarren saioa da. 2011n publikatu zuen lehena: *Lau kantari: Beñat Achiary, Mikel Laboa, Imanol Larzabal eta Ruper Ordorika*: “17 urterekin une berezia tokatu zitzaidan bizitzea. Unibertsitate ikasketak fabrika egin nituen. Gure aitek kontatzen zigun, bera heriotza ziur batetik libratu zela, irakurtzen eta idazten zekiela. ‘Horrek salbatuko zaituzte’ zioskun aitek. Haren azpiko agindua jaso nuen nolabait”.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Liburuaren azala Lemoizko Zentral Nuklearrean egindako argazkia da. Berezia da azala, baita liburuaren titulua ere.

Argazkia nik egin da, alaba ageri da behean. Dinamitz egindako zauria bezala ikusten dut, hormigoizko eta burdinazko eskultura bat iruditzen zait. Argazkia ez da, agian, komertzialki erakargarria. Baina, zergatik azaldu liburu deseroso bat argazki “eroso” batez apaindua? *Zazpigarren heriotza* titulua Attila József poetaren *Zazpigarren poemak* iradokia da. Poemak heriotzaz eta birjaiotzeaz hitz egiten du. Konbertsioaz ari da, eta nik, funtsean, horretaz idatzi dut liburuan.

Saioa azken 50 urteko borroka sozialaz eta politikoaz ari da, besteak beste. Bortxaz ari da, heriotzaz. Gaia ez da samurra. Zergatik “heriotza eta birjaiotza” beharra?

Birjaiotzeko hil egin behar da, baina normala denez, inork ez du hil nahi. Modu sinbolikoan ari naiz. Ordea, hau-

xe ulertu behar dugu: iragan berriko fenomeno sozio-politikoak bizi izan dugunok –ETAre leku zentrala kontuan harturik–, ez badugu heriotzaren gaia lantzen, fantasmak edo zonbiak bilakatzera gaude kondenatuak. Adineko jendearen itxura dugu, itxura maitagarria beharbada, baina jendartetik kanpo biziko bagina bezala geratuko gara. József poetak dioenez, behin, bi edo sei aldiz hiltzea ez da nahikoa, zazpi aldiz hil behar duzu. Eta zazpigarren ahalegina zerorrek egin behar duzu. *Zazpigarren heriotza* ez da liburu eroso, baina gutxiengo batek bederen irakurtzea espero dut.

Zer da zuretzat *Zazpigarren heriotza*?

Zain nuen liburua da. Editoreak eta lagunek bultzaturik idazteko urratsa eman nuen, ez naizelako idazle. Ni ikasle eta idazlari sentitzen naiz. Nire adinean horrelako lanetan hasteko “ausarta” izan behar da. “Gai izango ote naiz?”, pentsatu nuen. ETAre bukaera suertatu zen eta nire barne presioari erantzuteko premia areagotu zitzaidan, barne korapiloa askatu beharra. Alabari idatzitako gutun batez abiatzen da liburua. “Orain hasten da zailena”, idazten diot. Nire buruari ere botatzen diot erronka: “Eta orain zer?”. Hau da, zer egin behar dugu hemendik aurrera? Bizi izan dugun amets gaizto horretatik hala edo nola libratu etorkizunari begira? Saio honen gai nagusia dolua da. Gaiak berean sakontzea eskatzen du. Batzuek “noraino joan zara edo joan nahi duzu” esango dute: “Zertaz ari da?”. Hasteko, geldiune bat egin behar dugula uste dut. Liburuan hori agertu nahi izan dut. Nire ustez, planteatu dudana baino gutxiagorekin ez goaz inora. Horrek ez du esan nahi, erantzunen bila nabilenik. Irtenbide errezetak baino urgentziazko dei moduko bat dago liburuan: “Geldi gaitzen!”. Tarte bat hartu behar dugu bizi dugun krisiari eta aldaketari buruz hausnartzeko. Aldaketa prozesu guztiek krisi bat dute beren baitan. Krisiak gailera erran nahi du, aurreikusia zenuen perspektibatik errealtateak bortxaz desbideratu zaituela. Horri trauma, istripua edo dena delakoa deitzen zaio. Une horretan ezinbestekoa da gelditzea.

Zer da dolua, zure ikuspegitik?

Dolua ez da, desgrazia hau gertatu zait eta pasa behar dudana trago txar bat. Do-

lua ekintza aktibo-pasibo bat da, nolabait esanda. Aktibotasuna dago, zu prest zaudelako ibilbide hori egiteko, jakin behar duzu hala ere, ez dakizula ibilbide horrek noraino eramango zaituen. Erabaki irmoa dago hor. Hau da, trago mikatz hori edango dut, artean ondorioa ezagutu gabe. Bestera esanda: istripu bat gertatu zait eta “niri hau ez zitzaidan gertatu behar” esaldiarekin tematzen gara, ukazioan. Jarrera horrekin, bidean eman beharreko hurrengo pausoa erabaki dugu horrez gero. Horrek zapuzten du dolua. Aitzitik, doluak hutsune horri aurre egitea eskatzen du, hor dago alde pasiboa.

Liburua “legearen aurrean jartzeko, go-goeta zubi” bezala hartu al daiteke?

Komeni da argitzea. Zu zeu zein legeaz ari zaren eta zein legeaz ari den liburua. Legea maiuskulaz eta minuskulaz idatz daiteke. Ni maiuskulaz ari naiz. Lege hori ez dakigu zer den. Legea bestea da, nolabait. “Bestea”, hau ere maiuskulaz. Legea ulertu eta harrapatu ezin dudan hori da. Kafkaren irudiari jarraituz, zaindaria beldurgarri bat dago Legearen aurrean. Lege horrek agente eskuraezin eta beldurgarri baten modura funtzionatzen du, erantzunik ez duen zerbaitekin zirikatzailea da. Zentzu horretan Legea trata ezina den neurrian, baina beti presente, erantzun baten eske ari zaigu, etengabe.

Trantsizio ondorengo ETatik egungo ETara bitarteaz ari da saioa. Ezker abertzaleak ETaren jardueraz eginiko hausnartekin kritiko zara.

Bai. Gaur egun ia denek –bai ezker abertzaleak bai ETAn ibilitakoak ere– esaten dute “gure diagnosis ona zen, Urkulluk edo Erkorekak onartzen dute hori”. Hau da, Trantsizioa ustela izan zela, ez zuela frankismoa gainditzeko balio izan. “Gure diagnosis egokia zen” diote, baina jauzi ustel bat egiten dute, oso sintomatikoa da beren arrazoibidea: “Guk egin genuen diagnosis zuzena zenez gero, gure ekimena zuzena izan da”. Noiztik hori, aizu? Zu oinazeaz zaude eta diagnostikoak minbizia duzula esaten dizu, baina edozein sendabidek ez dizu balio.

ETaren porrotaz ari zara.

Bai, ETaren porrotaz ari naiz, baina ETaren porrotaz baino gehiago, harago joanez, mundua aldatu nahi genuenon



"Zazpigarren heriotza" liburuaren azalaren argazkia Juan Gorostidik berak egina da. Alaba ageri da behean.
"Dinamitaz egindako zauria bezala ikusten dut, hormigoizko eta burdinazko eskultura bat iruditzen zait", esan digu saioaren egileak.

porrotaz ari naiz. Gertatu zena, nik espikatzen dudana moduan noski, hauxe da: ETA jendartearen zurrunbiloaren barruan zegoen erakundea zen, gu gizarte dinamikan ari ginen, barru-barruan. Gaurdanik begiratuta, egoera hura ulertzea zaila da. Bortxazko egoera soziopolitiko hartan astero hildakoak izaten ziren, horietako asko poliziak hilak. ETArekin bortxa bestalde. Bortxazko egoera hartan egituratzen da ezker abertzalearen aparatua. Besteak beste, ezker abertzalea egituratu gabe zegoelako. Altsasuko Mahaia 1978an eratu zen. ETArekin inguruko militante haiek, gutxiengoak ziren. Horrela zen Errenteria bezalako leku "beroetan". Bereganatze moduko bat gertatu zen. Suplantazioa esaten dut nik, are hitz gogorragoz esan ere: usurpazioa izan zen, ustez borrokatzen zen sistema bat –hauteskundeak, instituzioak...– erabiliz eta borroka armatuarekin tematze itsu batez gauzatua.

Gaurdanik begiratuta, egoera hura ulertzea zaila dela diozu. Azaldu egoera gehiengo.

"Politika" eremuan sartzeak luze joko luke. Errenteriako mugimendu hark sistemarekin, trantsizioarekin, mundu mailako krisi eta birmoldaketa prozesuarekin topo egin zuen. Nire bizipena hauxe da: Errenterian 10.000 per-

tsionen manifestazioak eta astebeteko greba orokorrak zeuden. Nola daiteke, urtebetean botere sentsazio nabarmena edukitzea, eta bi urtera mugimendua hutsaren hurrengoan geratzea? Zer gertatu zen Errenteriako, Gasteizko edo Lemoizko Zentral Nuklearraren aurkako mugimenduan? Nola liteke halako herri mugimendu indartsua izanda, handik bi urtetara, sindikatuak zirela eta, hauteskundeak zirela eta, han jardun ginen militanteek gure atzetik inor ez zetorren sentsazioarekin geratzea?

"Gauetik biharamunera agertokia aldatu zen", idatzi duzu liburuan.

Bai. Guk ez genuen gaitasunik izan egoera hari aurre egiteko. Egoera tamalgarri haren aurrean gehiengo suminduak zer egiten zuen? ETA-ezker abertzalearen aparatutik zetozen konsignetara makurtu: "Aurrera mutilak!". Une batez egoera aztertzeak gelditu beharrean –dolu egin beharra zegoen ordurako– kontrako bidea hartu zen: zenbat eta gogorrago eta bortitzago jokatu, hobe. Euren hitzetan, hura zen erradikala izatea. Baina joera hori ez da erradikala. Konturatu gabe, borrokatzen duzun etsaiaren laguntzaile bilakatzen zara.

Boterea perbertsoa da.

Bai. Gure "botere kuotari" atxikitzeak bizi dugun porrot-egoera ikusteko ezin-

tasuna dakar. Harrokeriak eramaten gaitu gure mugak ez onartzera, gure ahalegin horren mugak ez onartzera. Gure ezintasunaren eta frustrazioen elikatzaile bihurtzen gara automatikoki.

Pertsonok "hamalau" izaten gara.

Txikitasun konplexua dago horretan. Harrokeri horrek ahuldade handia erakusten du. Badirudi ahuldadea kikiltzea dela, eta ez da hori. Aitzitik, gotortzean egon liteke ahuldaderik arriskutsuena.

ETako buruzagi Jose Luis Alvarez Santacristinaren (Txelis) kasuaz iritzia ematen duzu. Konbertsioa sakonetik landu duzu.

Galdera planteatzen dut: zergatik gertatzen da konbertsio fenomenoak? Hona, nire ikuspegia: mugaz ari gara. Une batez muga batera iritsi zara, zure bizia eta besteena jokoan jarri dituzu eta hormaren kontra jo duzu. Irtenbide gutxi duzu hortik ateratzeko. Zer aukera daukazu? Bat, zure buruaz beste egitea. Beste bat, eromenean erortzea. Askori gertatzen zaio. Hirugarrena konbertsioa da. Hiruen artean positiboena konbertsioa da, noski. Besteak erabat suntsitzaileak direlako. Pertsona batek konbertsioaren bidea "aukeratzen" duenean, kaketan artean, eromenaren atarian inork ez baitu modu lasai eta askean aukeratzeko, erantzun instintibo moduko bat izaten du. Horregatik dira konbertsioak

ere erabatekoak. Derrepente bizitza eta heriotza daude jokoan. Konbertsioa bizi duenak tximista sentitzen du goitik behera. Beraz, irtenbidea “arrazoizkoa” iruditzen zait. Horren adibide asko dago historian.

Hainbat pertsonen jokamoldea zalan-tzan ipini duzu. Gure morala berraztertu beharra aldarrikatu nahi duzu?

Bai eta ez. Kontua ez baita juzku morala egitea, hori inportantea izanik ere. Nik ez dut *Txelisez* edo beste edozein pertsonaz juzku moralik egin nahi. Luze polemizatu dut beste era bateko “konbertsoen” ekarpen interesante baina erratuekin, Joseba Zulaikarena, esaterako. Esaten dudana da: “Aizu, zure konbertsioa publiko egiten baduzu, ustezko aldaketa horren ondorioz, zalantzan jartzen dut zure aldaketa bizi edo hil hurren zaudenean “aukeratu” duzula. Kinka horretan irtenbide benetan pentsaturik ez dago, ez dago maila horretako aukerarik. Hor bizirik irauteko bulkada dago. Nik kritikatzeko, horrelako prozesu baten ondoren, pulpitu- ra igotzea eta predikatzen hastea. Jarre- ra horrek krak egiten dit. Zertara zatoz zure burua adibide bezala jartzera, zure burua non zenuen ere ez dakizunean. Areago, konbertsioarekin onartzen duzu ez zenekiela non zinen, enajenatua zinela onartzen duzu.

Kontua minbera da.

Noski. *Txelisek* edo damutu direnak diotena oso sinplea da eta mila aldiz errepikatu da historian zehar. Interesatzen zait jakitea, non zegoen pertsona hori, adibidez, *Yoyes* hil zutenean. Edo ondorio latzak zituen “kale borroka” hauspotzen zenean. Horren gaineko gogoetak eta esplikazioak interesatzen zaizkit, ez “zalditik erori” ondoren bide zuzena eta argitsua non dagoen. Interpelazio gogorra da, tartean asunto gogorrek ditugulako.

Izan ere, saioaren II. atalak *Dolu baterako arrastoak* du izen. I. atalak berriz, *Erreterian izan zen*. Zure garaiko militante eta kide Luis Elberdin kritikatzeko duzu *Sortze -minez Erreterian* azpiatalean.

Ez da kritikatzeko dudak interpretazio “historiko” bakarra. Patxi Lopezen jaur-laritzapean eta unibertsitateak ematen duen zilegitasuna aprobetxatuz EHUKo Raúl López Romo historiagileak Lemoi-

“Alabari idatzitako gutun batez abiatzen da liburua. ‘Orain hasten da zailena’ idazten diot. Nire buruari botatzen diot erronka halaber: ‘Eta orain zer?’

“Pertsona batek konbertsioaren bidea ‘aukeratzen’ duenean, eromenaren atarian inork ez baitu modu lasai eta askean aukeratzen, erantzun instintibo moduko bat izaten du. Horregatik dira konbertsioak ere erabatekoak”

“Kontua ez da juzku morala egitea, hori inportantea izanik ere. Nik ez dut *Txelisez* juzku moralik egin nahi. Luze polemizatu dut beste era bateko ‘konbertsoen’ ekarpen interesante baina erratuekin, Joseba Zulaikarena, esaterako”

“Ardura etikoez ari gara, baina hor bada, baita ere, ardura politikorik: ‘Jendea desmobilitaturik dago’ edo ‘kontzientzia asko apaldu da’. ‘Besteek’ al dute beti horren ardura?”

zen inguruan egiten duena beste adibide lotsagarria da. Gure historian horiek bezalako asko izan dira, ardura handikoak. Noski, oso diferentea da ETako buruzagi izatea edo historiagile kaskarra izatea, hauen kasuan bezala. Elberdinena askotan gertatu da. Hau da, pertsonak prozesu konkretu batean parte hartzen du –gurea Erreterian izan zen–, eta prozesu horrek politizazio bilakaera dakar berarekin. Baina, zer da politika? Oso motz ari gara edozein egunkaritarako politika sailean datorrenaz ari bagara. Politika zure prozesua da. Familian, lantokian, jendartean, eguneroko bizitzan muga bat planteatzen duzunean, hautu bat hartzen duzu. Demagun, “lan baldintza hauekin ez nago ados” diozu, eta hor dinamika bat hasten da. Dinamika horrek berak ekartzen du mugen kontzientzia. Esaterako, nagusiak zer aliatu dituen, zein estrategia eta indar. Orduan politizazioak salto kualitatiboa ekartzen du, hau da, kontziente egiten zara esparru ustez txiki hori leku zabal baten barruan jokatzeko dela, aginte eta botere oreka batzuk gertatzen direla. Kontzientzia hartzen duzu eta ondorio batzuetara ailegatu behar duzu. Hori da politizazio prozesu bat. Ez ideologizazio prozesu baten bitartez edo hautu emozional kolektibo batzuen bitartez egiten den talde-lerratze hutsa. Benetako politizazio prozesu baten ondorioak ez dituzu ezagutzen, zerikusi gutxi dute eslogan eta formula jakin batzuetara lerratzearekin. Bestela, fetitxeak baino ez ditugu elikatzen.

Erreterian, trantsizio garaian, usurpazio moduko bat izan zela arrazoitu duzu liburuan.

Barne erbesteratze bat ekarri zuena, gainera. Nik inpresioa daukat, bai orduan eta bai gerora ere, hamar lagunetik bederatzik atzera egin dugula une batean edo bestean. Hor dago zenbait komisario politikoren ardura, ikuspuntu askatzailetik ari bagara. Jarduera kolektiboetan engaiatutako gehienok atzera egin izan dugu, geure kokatze pertsonal, sozial eta politikoa birplanteatuz edo, besterik gabe, gogaituta eta erreta, etxera itzuliz. Ardura etikoez ari gara, ni ere ari naiz horretaz liburuan, baina hor bada, baita ere, ardura politikorik: “Jendea desmobilitaturik dago” edo “kontzientzia asko apaldu da”. “Besteek” al dute beti horren ardura? ■

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Anaien artekoa



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Neronek tirako nizkin

SEBASTIAN SALABERRIA

Auspoa, 1961

Hizki baten garrantzia: hatxea erantsi dio Auspoa argitaletxeak bilduma berriari, Hauspoa. Hizki baten garrantzia: mutua izan arren, eta batuaren sorrera garaiak horren lekuko, zenbat esaten duen, zenbat gordezten bere baitan. Baten batek esango du berandu, baina ongi etorria egiteko modukoa da ekimena: Auspoa zaharreko alerik esanguratsuenak berritu, euskara estandarrean jarriko ditu bilduma honek. Estreinakoa, klasiko bat, *Neronek tirako nizkin*, Sebastian Salaberriarena. Autobiografikoa, haur-gazte denboretako berri eman ondoren, gerrako ibilerak kontatzen dituena. Oker ez gadaude, Hegoaldean euskaraz publikatu zen 1936-39ko gerraren aurreneko lekukotza.

Emailuak laburtzen digu: anaia “bestek esanda” Bilbora alde egina, abertzaleekin. Sebastian Donostian geratu, gerra berehala bukatu eta libratuko zelakoan. Kukuak oker jo: frankotarrekin frentera. Hain zuzen ere, horixe da narrazioak nabarmentzen duen gatazka: “Beti kezka horrekin ibili nintzen gerra-denbora guztian: ea nire anaia hori nonbait aurkitzen ote nuen hilda, erituta edo prisionero eginda”. Ondo azaltzen du Anjel Lertxundik, edizio batuaren hitzaurrean: “Soldadu berriak ez du bere eginkizunaren zentzu historikorik, bere jardunaren epikotasunik, sentimendu aberkoi berezirik”. Anaien artekoa da gerra, beraz –beti anaien, auskalo non sartzen ziren ahizpa-arrebak–: gerra eremu familiarrera ekarrita, karga politikorik gabe, erabat deskontestualizata, errebisionismoak egiten duen irakurketarekin lerratuko litzateke kontakizuna. Ez, egia da, eta eskerrak, bereziki banderizo,

ez etsaiak sobera itsututa: “Jeneral agintari hura, gizon ospetsua izan arren, soldaduen mendean baitzegoen. Gauza penagarria benetan!”. Esan dezagun besteren gainetik maite duela ordena. Eta, ordurako euskal nobelagintzak egina zuen arren urratsik modernitatera –Etxaideren saio historikoak, Loidiren nobela beltz ospetsua, *Txillardegiren* lan existentzialak–, lehena izateagatik pasa dela nabarmen historiaren paperetara. Lertxundik, berriz: liburua irakurri zuen lehen aldian etxeko euskararekin egin zuen topo. Lehendabiziko aldiz: “Ez nuen etxeko berorik topatzen ordur a arte euskaraz irakurrita neuzkan liburuetan: batzuk garbi-zaletasunez zipriztinduak, eta beste batzuk, berriz, garo-usainak markatuak, urrutikoak egiten zitzaizkidan edo idealizatuak, lehorrak, kasik arrotzak”. Horixe omen liburuaren bertuterik handiena: “Ahozotasunaren jarioa ematen jakin izana. Liburua altxor txiki bat da ahozko baliabideak idatzizko testu batean nola txerta litezkeen aztertu, ikasi eta imitatu nahi duenarentzat”. Horrekin geratuko gara ba. Eta Hauspoaren emaitza berrien zain. ■

Sebastian Salaberria
idazle oiartzuarra
(Oiartzun, 1915 -
Hernani, 2003).



» **TELEGRAMA**

Irailaren 30ean, 19:00etan, **Gasteizko JimmyJazz aretoan** kontzertu zabala izanen da Taste of Anarchy Tourren karietara: Nasty, Aversions crown, Malevolence eta Vitja taldeek joko dute **STOP** Urriaren 1ean **Xilaba Bertsulari Xapelketaren bigarren kanporaketa** Muskildiko Posonpesenea gelan, 17:00etan: Aitor Servier, Battitt Crouspeyre, Eneritz Zabaleta, Maddi Sarasua, Ortzi Idoate, Xumai Murua bertsolariak **STOP Gutun Zuria Irakurketa Klubak** bere ateak irekiko ditu urriaren 4tik 2017ko ekainaren 13ra bitartean. Irakurzaletasuna sustatzeko tailer hau Bilboko BBKren Mediatekan gauzatuko da **STOP**

» **KONTZERTUA**

Bai eta ez



Montse Auzmendi

**Bilbao arte portua**MAGGIO MUSICALE
FIORENTINO ORKESTRA

Zuzendaria: Zubin Mehta.

Egitaraua: Schubert eta Bruckner-en obrak.

Lekua: Euskalduna Jauregia.

Data: irailaren 16a

Apustu txalogarria iruditzen zait *Bilbao arte portua* izeneko kontzertu handien ziklo berria. Baditugu Bilbon musika klasikoa disfrutatzeko aukerak, baina ongietorria ematen diogu ekimen berri honi. Halere, beldur berezia sentitu nuen ziklo honen lehenengo saioan. Orkestra on bat izan dugu, Maggio Musicale Fiorentino orkestra hain zuzen ere; Zubin Mehta bezalako legendazko zuzendari bat, eta oso jende gutxi zegoen Euskalduna Jauregiko auditorioan. Ezin nuen sinetsi. Eguraldi txarra? Sarrera garestiak? Ez dakigu, baina ez zen normala.

Nahi eta nahi ez, egoera honek hoztasun puntu bat eman zion kontzertuari, hasieratik bukaeraraino, eta, nire ustez, nabaritu egin zen Mehta maisuak emandako fruituetan.

Egitarau zinez interesgarria eskaini zuten, hori bai. Amaitu gabeko bi sinfonia paregabeak: Schubertena eta Brucknerena. Eta emaitzak guztiz desberdinak. Schuberten *Sinfonia si minorrekoa D 759 Amaitu gabea* obra liriko eta poetikoa da, benetakoa maisulana. Eta bai, honen irakurketa gozo bat izan genuen, baina nahiko planoa eta, esango nuke, aspergarria. Bertsio soila izan genuen, soilegia agian, adorerik gabea. Zubin Mehta pasiboa aurkitu genuen, ez zuen partitu-

ratik inongo txinpartarik atera. Orkestrak soinu ona eta konpaktazioa eskaini zituen, baina handik aurrera ez genuen ezer bereziki atera.

Zorionez, beste poz bat hartu genuen kontzertuaren bigarren zatian. Bruckneren *9. Sinfonia re minorrekoa A 128* obra oso lan adierazkorra da, mila ñabardura gordetzen dituen, eta halaxe sentitu genuen. Aitortu behar dugu soiltasunaren bidean jarraitu zuela Mehtak, baina aldi honetan bai atera zuen partituraren arima. Lehenengo mugimenduak *Feierlich*, Gradazio misterioso eta interesgarria izan zuen. Bigarrena, *Scherzo*, lehor eta gogorra iritsi zitzaigun, behar bezala, eta une onena, dudarik gabe, hirugarren mugimenduan izan genuen. *Adagio* miresgarria entzun genuen, mistikoa, ederra.

Ziklo honen bigarren saioa urriaren 23an izango da. Moscow Virtuosi izango dugu Vladimir Spivakov-en batutapean. Ea publikoak erantzuten duen. ■



Zubin Mehta orkestra zuzendari indiarra (Mumbai, 1936).



64

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

SAIL OFIZIALA

Biolentziarik gabeko palmaresa



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligoria

“Aurreikuspenak ez ziren batere onak eta, hori kontuan izanda, emaitzarekin nahiko kontentu gaude”. Ez dira PPko kide batek igandeko hauteskunderen emaitzak ezagutu ondoren egindako adierazpenak, lagun bati esan niona baizik, Zinemaldiko Sail Ofizialeko azken filmak ikustear nengoela Donostian topo egin genuenean. Izan ere, kontuak ez zeukan itxura bereziki onik hasieran: zuzendari ezagunik apenas, lehiaketa ireki zuen *La fille de Brest* ekoizpen telefilmeko kaskarra... Baina lehen inpresioak eta hauteskunde kanpainenak inkestak, antzeko parezido, ezin zara fidatu; eta ezin duzu, halaber, apustu segururik egin, Zinemaldia ez baita Euskal Autonomia Erkidegoko bozak bezalakoa, urtero daude aktore eta gidoi diferenteak eta hain zuzen horrelako gauzengatik da osasun mentalarentzat hobea Euskal Herrian kultur kazetari izatea eta ez politika sailekoa.

Pasa da aste bat zeinean filmek kanpainak baino fikzio gehixeago jarri duten eta banatu dira sariak: Txinara doa



Txinara joan dira Zinemaldi honetako sari garrantzitsu bi: argazkian Xiaogang Feng zuzendaria Urrezko Maskorarekin.

Urrezko Maskorra, baita emakumezko aktore onenaren Zilarrezkoa, Xiaogang Feng zuzendariaren *Wo bu shi Pan Jinlian* filma bihurtuz edizio honetako garaile nagusi. Absurduarekin jokatzen duen pelikula bitxia da eta, izan ditzakeen gabeziak gorabehera –“dena” justifikatzen duen amaierako errebelazio bat– saridun duina da. Ezin gauza bera esan zuzendari onenaren sariatz: Hong Sang-Soo hego korearraren filmak amaiera pattala eman zion Sail Ofizialari, errepikakorra eta aspergarria gertatzen zen bikote harremanen istorio batekin. Haren ibilbidea kontuan hartuta bakarrik ulertzen da etxera eraman duen maskorra, ez baita ekarri duen lanaren neurrikoa inondik ere.

Bi thriller espainiar, beste hainbeste sari: aurreko edizioetan ez bezala, nahiko bidezkoak dira industria iberikoak jasotakoak, *Que dios nos perdonen* gidoia borobila baita eta Eduard Fernandez aktore onenaren Zilarrezko Maskorra ere merezitakoa –bide batez, lata ederra izango dugu Hego Euskal Herriko bizila-

gunok telebistan bi ekoizpen horien kontura Goya sariak banatu bitartean–.

Palmaresetik kanpo geratu dira gaur egungo Mendebaldeko gizarteari buruzko begirada aztoragarrienak eman dituzten zenbait lan: *Plac Zabaw* poloniarra, *Jesús* txiletarrak eta batez ere Bertrand Bonelloren *Nocturnamak* esplikazio konkreturik ez daukan biolentziaren aurrean jarri dute ikuslea, bi-zi-estilo kapitalistak gazteei eskaintzen dien aukera falta agerian utziz. Asmo diferenteekin eginak eta emaitza aldetik ere elkarren artean oso desberdinak diren arren, belaunaldi berriei egindako argazki ezkor horiek arreta merezi dute, batez ere gurean indarkeria bukatu dela predikatzen duten politikariei kontrapuntua eskaintzen dietelako. Bada biolentzia bat gizartean geroz eta errotua goa, espektakulu bihurtzeko ez bada oihartzunik gabe pasatzen dena, baina egituraketa sozialaren ondorio denez erantzunak eskatzen dituena. Eta hori zineman ikusi dugu, ez kanpainen eta ez botoak zenbatzean. ■

Irakurri Zinemaldiko pelikulen kritikak
www.argia.eus/zinemaldia-2016 helbidean.

PUBLIKOAREN SARIA

Babarrun lata bat



Mikel Garcia Idiakez
 @mikelgi

Zine soziala saritu dute Zinemaldiko ikus-entzuleek, elikagai bankuan emakume bat, gosearen gosez, babarrun lata bat irekitzen eta zuzenean latatik jaten ikusteak hunkitu egin gaituelako, hainbeste da horrelako eszena batek esan nahi duena. Bai, Ken Loach zuzendari britainiarraren zigilua bete-betean daraman **I, Daniel Blake** saritu du publikoak, Loachen formula ezaguna zaigun arren, ongi funtzionatzen duen formula delako. Dramatismo merkean erori gabe, gizarte babesari loturiko burokrasia zenbateraino den kafkianoa, bihozgabea eta, areago, hiltzailea salatu du oraingoan zuzendari ezagunak. Demagogikoa eta panfleteroa dela esango du baten batek, baina guri oso errealista eta sinesgarria iruditzen zaigu irudikatu duen sistema burokratikoak, pertsonak Gizarte Segurantzako zenbaki huts gisa tratatzen dituen, beharra duen jendea dela sinestea baino nahiago duena iruzur egitera datozela pentsatzea, Estatuaren kontura bizitzera. Beste aldean, biktima ahulen ordeztu pertsonaia indartsuak eraiki ditu zuzendariak, bizi-modu duina lortzeko eta euren eskubideak defendatzeko borrokarako prest, erori ostean berriz altxatzeko eta elkarri laguntzeko prest, eta eraikin publikoen aurrean –eszena bikain batean– graffiti bidez administrazioaren hipokresia salatzen duen prest.



Europako film onena ere, publikoaren aburuz, zine soziala da: Claude Barras zuzendariaren **Ma vie de Courgette** animazio lana. Harrera-etxe batean bukatu duten umeen istorio apur bat naif, apur bat este-reotipatua da, baina mimo handiz eginga.

Publikoaren Sarirako parte hartu duten pelikulen sailean, Donostiako Zinemaldian behin baino gehiagotan izan ditugun zuzendarien urtea izan da, eta ez digute huts egin, gehienek pelikula gogoangarriak utzi baitizkigute. Horren erakusgarri, hiru adibide:

Pablo Larrain Txileko zuzendari aipagarrienetakoak **Neruda** aurkeztu du, Pablo Neruda poetari buruzko filma: Alderdi Komunistako kide izateagatik poeta atxilotzeko agindua eman zuten garaian giroa, Neruda lurtarrena erakutsiko digu filmak, bere kontraesan guztiekin. Pelikula biografikoen ohiko arauetatik aldentu eta istorio bitxia, originala sortu du Larrainek: poliziaren pertsonaia asmatu eta errealtatearekin eta fikzioarekin jolastu du, espazioekin, narrazioarekin, generoen uztarketarekin... Ederra da emaitza, irudietan, gidoian, kontatzeko moduan, poetaren unibertsoa atzemateraino.

François Ozon frantziarra ere ez da berria Donostian, eta **Frantz** paregabea du azken lana. Lehen Mundu Gerraren

amaiera da, eta Frantzian guda-zelaian hildako senargai alemaniarraren hilobira bisitan joan da Anna. Baina ez da bakarra, gizon frantziar misterioitsu batek loreak eraman ditu Annaren senargaiaren hilobira. Abiapuntu horri tiraka, iraganari begira eta iragana berreskuratzeko ilusioz bizi den protagonistaren istorioa da **Frantz**, frustrazioz frustrazio aurrera egingo duen emakumearena. Bihurgunez jositako trama da, baina artifiziorik gabe, dotore eta fin narratua, tonu klasikoan. Nahi duen lekuetatik eramango gaitu zuzendariak, guk sinestea nahi duena sinetsiko dugu, eta merezi duen bidaia izango da.

Iazko Publikoaren Sariak ere errepikatu du aurten: Hirokazu Koreeda zuzendariak. Berriz ere familia eta familiarteko harremanak ditu oinarri **After the storm** filmean; berriz ere tonu eta erritmo pausatuan kontatu digu istorioa; eta berriz ere, harrapatu egin gaitu zuzendari japoniarraren unibertsoak. Klase ertaineko familia baten amaraun konplexua du aztergai –ohiko legez–, intimista eta hunkigarri batzuetan, umoretsu besteetan, gordinago hainbatetan. Ilusioak desilusio bilakatzen direnean ere, hutsegiteek atzera bueltarik ez dutenean, bizitzan aurrera jarraitu behar da, iragana ezin dugulako aldatu, baina oraina eta etorkizuna bai. ■

Madani Koumare. Elkartasunezko ekonomia sozialean buru-belarri



Elkartasunezko ekonomia sozialak krisi ekonomiko finantzarioari aurre egiteko zein lurralde baten garapena segurtatzeko balio duela dio Madani Koumarek, Afrikako elkartasunezko ekonomia sozialaren sareko buruak. Ez du berdina pentsatzen ordea nazioarteko kooperazio politikez. Gaizki bideratuak izanki, kooperazio horrek dakarren balio erantsia Afrikatik urrun gelditzen dela deitoratzen du maliarrak. Garapenerako kooperazioaren paradigma aldatzeko garaia dela dio.

“Nazioarteko kooperazio politikak iraultzeko garaia da”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

Ezagupen politikoa eske

“Afrikan nagusitzen den eredua da elkartasunezko ekonomia soziala. Ezagupen politikoa lortzean datza nire eta gure helburu nagusia, sektorea sustatzeko politika konkretuak behar ditugulako. Bide horretan genuen 2003an Renapess egitura sortu Malin, sektorea egituratzeko eta saretzeko asmoz. Afrika osan ere sareturik gara 2010az geroz. Ardura asko ditut, elkartasunezko ekonomia soziala jendarte hobeaz lortzeko tresnatzat dudalako”.

Zertan da elkartasunezko ekonomia soziala Afrikan?

Ekonomia erreala osatzen du Afrikan. Biztanleriaren bi heren horretan dabil-tza. Usu ekonomia informala dela entzun ohi dugu, baina ez, zinez erreala da. Eskolatik ateratako gazteek sektore horretan kausitzen dute babeslekua, langabezia egon beharrean. Zinez deritzot, esperantza ekarle izateaz gain, lurraldearen oreka segurtatzen digu elkartasunezko ekonomia sozialak. Errespetu eta ezagupen handiagoa merezi duen sektorea da.

Sektorea laguntzeko nahikaria sentitzen ote duzue egitura publikoen partetik?

Hori da gure erronka: ezagupen politikoa lortzea eta elkartasunezko ekonomia soziala sustatzeko politikak planteatzea. Betidanik egon da elkartasunezko ekonomia soziala Afrikan, ez da berria. Baina kontua da inoiz ez dela sistematizatu. Herritar gehienak hunkitzen dituen heinean, irabaziak eta enpleguak sortzen dituen heinean, plan politiko

nazionaletan sarturik egon behar du. Aldaketa dator eta poliki-poliki sektorea kontuan hartzen dabil-tza gobernuak. Adibidez, plan politiko bat lortu genuen Malin, koadro legislatibo bat finkatu berri dute Marokon ere, ezagupen ofiziala lortzeko bidean dira Senegalen eta Kamerunen, eta abar. Talde parlamentarioak osatzen ari dira ezker-eskuin, sektorearen sustapena segurtatzeko. Beraz, erran dezakegu posturak aldatuz doazela: pobrezia aurre egiteko balio duen gastu global eta iraunkortzat hartzen dute sektorea gobernuak.

Justuki, pobrezia aurre egiteko nazioarteko kooperazio politikak estereotipoetan oinarrituak direla deitoratu ohi duzu.

Baserri munduaren garapenari so egin dezagun adibidez. Afrikan ezin dugu hitz egin laborantzaz familiako laborantza kontutan hartu gabe. Lehengaiak ez dira bertan transformatuak, horrek erran nahi du ez dela balio erantsirik eta enplegurik sortzen. Arazo larria da eta hori aldatzean datza gure borroka:



"Afrikan sortu lehengaiak ez dira bertan transformatuak, horrek erran nahi du ez dela enplegurik sortzen. Egin genuen inkesta baten arabera, %2k baizik ez lukete migratuko enpleguaren egoera egokia balitz", dio Koumarek. Argazkian, abuztuan Quebecen egin Munduko Foro Sozialean.

ekoizpenaz gain, ekoiztutakoaren transformazioan laguntzeko balio behar dute politika horiek. Nazioarteko kooperazio politiketan dabiltzanek paradigmaz aldatu behar dute. Garapenaren arloan lortutakoa xumea da, transformazioa gure esku balitz lortuko genukeenari alboratuta. Gainera, gazteen joatea ez litzateke gaurkoaren heinekoa. Inork ez du bere sorlekua plazerez uzten. Egin genuen inkesta baten arabera, %2k baizik ez lukete migratuko enpleguaren egoera egokia balitz.

Politika horiei buruz kritiko zara.

Badu hamarkadak txirotasunaren aurkako borrokaz hitz egiten dela! Baina pobreak ez du atzera egin. Zergatik? Azaldu dudak bezala, laguntza funtsak ez direlako balio erantsia dakarten sektoreetara zuzenduak. Aberastasuna eta hazkundeak ez ditugun bitartean, nekez lortuko dugu garapena.

Autonomia edota autodeterminazioaren printzipioak ezin dira itzalean utzi.

Printzipioz, testuinguru zehatz batean komunitate zehatz batek bizi izandako arrangura zehatz batzuei emandako erantzunak osatzen dute Politika, letra larri. Ez bada horrela, emaitzak ez dira komunitatearen ongizatearen alde izanen. Herritarren beharren analisi holistikoetan oinarriturik diren plan politikoak marraztu behar dira, ondotik horri egokituriko nazioarteko kooperazioak eskatzeko. Lokalki zein globalki, nazioarteko kooperazio politika horiek iraultzeko garaia da.

Muturreko pobrezia 2030erako desageraraztea du helburu Nazio Batuen Erakundeak. Hitza hartu zenuen iaz, helburu horri zuzenduriko NBERen gailurrean. Sinenesten al duzu gisa horretako egitura eta helburuetan?

NBERen funtzioetan sartzen da koadro finkatze hori. Estatuei dagokie orain koadro horiez jabetzea eta helburua betetzeko estrategien marraztea. Arduratsuki jokatu behar dute estatuek, ez dute helburua NBek inposaturiko

zama gisa azaldu behar. Dena dela, zentzu horretara dabiltzan gobernuek ez dute NBERentzat egiten, herritarrentzat baizik. Orokorrean arduragabe ikusten ditut gobernuak eta damugarria iruditzen zait.

Probidentzia Estatua ameskeria dela diozu.

Dirua banatzen zigun estatu hori ez dugu berriz ezagutuko, ez duelako ez ahalik, ez zaletasunik. Horregatik ditugu deszentralizazio mugimenduak. Estatu soziala haizatu dute Hegoko herrietarik Munduko Bankua bezalako egiturek. Alta, zerbitzu sozialak segurtatzen dituen estatua ezinbestekoa dugu herri pobreetan.

Azkenean, elkartasunezko ekonomia sozialak du betebeharrak betetzen.

Hain zuzen, eta horregatik du estatuak sektore hori lagundu behar. Are gehiago, jakinda krisi ekonomiko eta finantzarioei emandako erantzun hoberena dela elkartasunezko ekonomia soziala. ■



Euskadi, independentziaz 0,4 milimetro gertuago

EAEko herritarrek argiro dira mintzatu: erabakitzeak eskubidearen alde daude. Gasteizen lau parlamentariotik hiruk defendatuko dute euskaldunok gure pautaren jabe izan behar dugula, eta horrek legegintzaldiaren hasiera-hasieratik eragin ditzake mugimenduak burujabetzaren bidetik. “Hasteko, Legebiltzarreko kantuan askoz pintxo mota gehiago ipin dezaten sustatuko dugu”, adierazi du EAJko Ostalaritza arduradun Miren Abarne Tabernak, “orain patata tortilla baino ez dago eta horrela ez dago ezer erabakitzerik”.

Iñigo Urkullu EAJren lehendakariak Beranduegi eskusiban esan dionez, ondo gogoan ditu hauteskunde gauean Sabin Etxearen aurrean bildutako ehunka lagunak botatako “independentzia” oihuak. Nabardura egin du orde: “Oihuak entzun nituen bai, baina ez zuten garbi esan nongo independentziaz ari ziren; gobernua osatutakoan hartuko dudana lehen neurrietako bat Independentziazko institutua sortzea izango da, gaia arretaz azter dezan”.

EH Bilduk, bere aldetik, bi alternatiba ipini ditu mahai gainean: Podemosekin akordio zabala egitea, edo Zabalaekin akordio Podemos egitea. “Oraindik ez daukagu oso garbi, ea Otegi zer dioen”, azaldu du Haizea Hartzeara koalizioa partaidetza arduradunak.



Kamera ezkutua erabili behar izan genuen hauteskunde gauean Iñigo Urkullu postasun aurpegiz harrapatzeko

Bestalde, Nebraskako Unibertsitatean egindako ikerketa batek frogatu du bizkaitar guztiak jeltzaleak direla, baina batzuetan beste alderdi batzuei ematen dietela botoa, “ez aspertzeko”.

ADIERAZ-PENAK

Alfonso Alonso (PP):
“Galiziako eta Baskongadetako botoak batuta sekulako emaitza lortu dugu”

Alonso Alfonso (PPkoa ere bai):
“Ez dugu baztertzen EH Bildu-Podemos-PSErekin gobernu akordioa; ideologikoki arraroa litzateke baina a ze barreak, aizue”

Idoia Honda-Mendia (PSEEEE):
“Admititu behar gara resultadoak ez direlako izan buenoak, igual jendea euskera gehiago gustatzen du pentsatzen ginena baino”

Argiako langile bat:
“Pozik gaude EAEko herri sozialista bakarrean egoitza edukitzeaz”

“Ezpain gorrien iraultzak” ongi makillatu ditu EH Bilduren emaitzak

Denak ados daude koalizio soberanistan: “ezpain gorrien iraultza” delakoak funtzionatu du. Zerrendetako lehen postuan emakumeak jartzeak eta kanpainan aldarri feministak sartzeak bigarren postua ziurtatu diote EH Bilduri. “Joder ze inbentoa feminismoa!”, azaldu du koalizioa iturri batek. “Lehenago asmatu behar

zuten rollo hau, emakumeak eta kontu hori guztia. Bide honetatik segitu behar dugu, bi potrorekin”. Horrek intersektionalitatearen ikuspegian sakonduko dutela esan nahi ote duen galdetuta, zera erantzun du gizaseme berak: “Ba hori ya ez dakit, karreteratako kontuak beste kide batek eramaten ditu”.



BI BALA

www.pagoa.eus

URRIAK
OSTIRALA
07

23:00_{tan}

LAIN

PAGO

KAFE ANTZOKIA

OIARTZUN

berria

antza ARGIA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

PAGO

Euskal Herri berriko
artisau garagardoa



A: 5€ T: 8€

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,

Pagoa Kafe Antzokia

Donostia: Donosti Rock

Errenteria: Arkaitza Taberna

Internet: Colectivia, Mauka (berria)

eta www.ticket.kutxabank.es

Pagoa Kafe Antzokia:

Irekia:


ostirala, larunbata eta igandea

17.00tik aurrera

Erreserbak: 619 421 153

@PagoaAretoa

kafeantzokia@pagoa.eus



**AZKEN
EGUNAK**



1516 2016

Bake-itunak

San Telmo Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea

2016-6-18 / 2016-10-2

BAKEA
PAZ

STM
San Telmo Museoa

KM
Kulturunea



Antolatzaileak



DSS2016.EU

STM
San Telmo Museoa



DSS2016.EU: Erakunde laguntzaileak



donostiakultura.com



Babesle-orkorra

Telefonica

Laguntzaileak



San Telmo Museoa: Patrono pribatuak



San Telmo Museoa: Enpresa ongleak

